



Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Gipuzkoako Atala

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua

Gradu Amaierako Lana

DONOSTIAKO BIZTANLEEN PERTZEPZIOA TURISMOAREKIKO: TURISMO JASANGARRIA

EGILEA: Lander Iraola Holgado

ZUZENDARIA: Aitziber Etxezarreta Etxarri

2021/2022 Ikasturtea

LABURPENA

Txosten honen bitartez *Donostiako biztanleen pertzepzioa turismoarekiko: Turismo Jasangarria* titulodun Gradu Amaierako Lanaren aurkezpena egingo da IKD proiektuaren barnean kokatuz, Donostiako hiritarren pertzepzioa aztertzeko helburu nagusiarekin.

Lan honi hasiera emateko, lehendabizi gaia kontextuan jarriko da, sektore turistikoaren kontzeptu garrantzitsuenak azalduz, historian zehar izan duen garapena isladatzearekin batera. Ondoren, Espainiako herrialdean eta zehazki Donostiako hirian zentratuz, sektorearen bilakaera historikoa azalduko da; non eta nola hasi zen eta zeintzuk izan diren izan duen garapenean eragina izan duten faktore nagusiak. Bestalde, bai Espainiaren eta bai Donostiaren kasurako sektore turistikoaren gaur egungo egoera azalduko da, bisitari kopuruaren eboluzioa, hotel-sarreraren kopurua, sektorearen hazkundera, eta objektibotasuna isladatzen duten bestelako adierazleak erabiliz. Jarraian, sektore turistikoak sortarazten dituen eragin negatiboen ondorioz, gaur egun Turismo Jasangarria lortzeko dagoen beharra azaleratuko da, kontzeptu nagusien azalpena eginaz eta Turismo Jasangarriaren hiru ardatz nagusiak goraiatuz: ardatz ekonomikoa, sozio-kulturala eta ingurumenekoa. Turismo Jasangarriaren hariari helduz, biztanleen pertzepzioa turismoarekiko azaltzen duten teoria nagusiak sakon aztertuko dira, Hartu-eman Sozialaren eta Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoriak erabiliz, ondoren burutuko den analisi enpirikoaren ardatza izango direlarik. Lanaren helburu nagusia Donostiako biztanleek turismoarekiko duten pertzepzioa neurtzea izango da Turismo Jasangarriaren hiru ardatz nagusietatik eta aztertutako teoriaren eskutik, azken hauen frogapena burutuz Donostiaren kasurako. Azkenik, analisiaren bitartez lortutako ondorio nagusien azterketa egingo da, etorkizunera begira hainbat planteamendu eta gomendio ematearekin batera.

Gako hitzak: Turismoa, Turismo Jasangarria, pertzepzioa, Donostia, Teoriak.

ABSTRACT

This report will present a Final Degree Project developed within the IKD project, entitled Perception of the inhabitants of Donostia on tourism: Sustainable Tourism, with the main objective of analysing the perception of the inhabitants of Donostia.

To begin this work, the issue will first be put in context, explaining the main concepts of the tourism sector, as well as explaining the development it has undergone throughout history. Then, focusing on Spain and specifically on the city of Donostia, the historical evolution of the sector will be explained; where and how it began and what factors have most affected its development and evolution. On the other hand, the current situation of the tourism sector both in Spain and in Donostia will be presented, through the analysis of data such as the evolution of the number of visitors, the number of hotel admissions, the growth of the sector and other objective indices. Next, due to the negative impacts generated by the tourism sector, the need to apply a model of Sustainable Tourism will be presented, explaining the main concepts and extolling the three main axes of Sustainable Tourism: the economic, socio-cultural and environmental axes. Following on from Sustainable Tourism, the theories that explain the perception of the inhabitants with respect to tourism will be deeply analysed, which will be the Social Exchange Theory and the Place Attachment Theory, these theories being in turn the axis of the empirical analysis that will be carried out later on. The main objective of this work is to analyse the perception that the inhabitants of Donostia have of tourism in the three axes of Sustainable Tourism and the theories explained above, which will be checked to see if they are fulfilled in the case of Donostia. Finally, the conclusions obtained from the analysis will be explained, as well as making certain proposals and recommendations for the future.

Key words: Tourism, Sustainable Tourism, perception, Donostia, Theories.

AURKIBIDEA

SARRERA	9
1.1.Lanaren helburua eta motibazio pertsonalak.....	9
1.2.Metodologia.....	10
1.3.Egitura.....	11
1.4.Esker onak.....	11
TURISMOAREN EGOERA ETA BILAKAERA	12
2.1.Turismoaren kontzeptua eta bilakaera.....	12
2.2.Turismoaren egoera eta bilakaera Espainian.....	14
2.3.Turismoaren egoera eta bilakaera Donostian.....	16
TURISMO JASANGARRIA	18
3.1.Turismo Jasangarri bat eraikitzeko beharra.....	18
3.2.Turismo Jasangarri baterantz.....	21
3.3.Gipuzkoa ere jasangarritasunaren alde.....	23
JASANGARRITASUNA ETA PERTZEPZIOA: Egoiliarren turismoarekiko pertzepzioa azaltzen duten teoriak	25
4.1.Hartu-eman Sozialaren Teoria.....	26
4.2.Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoria.....	28
ANALISI ENPIRIKOA: Donostiarrek turismoarekiko duten pertzepzioaren azterketa ...	29
5.1.Metodologia.....	29
5.2.Hartu-eman Sozialaren Teoria: Aspektu ekonomiko eta sozialen azterketa.....	30
5.2.1.Onura ekonomiko eta sozialen azterketa.....	32
5.2.2.Kostu ekonomiko eta sozialen azterketa.....	38
5.2.3.Hartu-eman Sozialaren Teoriaren frogapena Donostiaren kasurako.....	44
5.3.Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoria: Aspektu sozialen azterketa.....	45
5.3.1.Donostiarrak sentitzen direnen eta ez direnen arteko ezberdintasunak.....	48
5.3.2.Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoriaren frogapena Donostiaren kasurako.....	52
5.4.Ingurugiroko aspektuen azterketa.....	54
ONDORIOAK	55

BIBLIOGRAFIA.....	58
ERANSKINA I: Inkesta.....	62
ERANSKINA II: Elkarrizketak.....	65

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1. Turismoa zerbait positiboa da hiriarentzat.....	31
Grafikoa 2. Turismoaren onurak izan daitezkeenen biztanleen pertzepzioa.....	33
Grafikoa 3. Turismoa positibotzat hartzen ez duten hiritarrek (inkestatuen %10a) onura orokorren inguruan duen pertzepzioaren analisia.....	36
Grafikoa 4. Turismoaren kostuak izan daitezkeenen biztanleen pertzepzioa.....	39
Grafikoa 5. Taberna eta jatetxeetako prezioen igoeren biztanleen pertzepzioa.....	40
Grafikoa 6. Etxebizitzaren prezioen igoeren biztanleen pertzepzioa.....	41
Grafikoa 7. Trafiko eta aparkamentu arazoengatik inguruan biztanleen pertzepzioa.....	42
Grafikoa 8. Pertsonen aglomerazioen inguruan biztanleen pertzepzioa.....	43
Grafikoa 9. “Turismoaren garapena sustatzen dut” galderari emandako erantzunak.....	44
Grafikoa 10. Donostiarrak sentitzen diren eta ez diren eta hiriarri estimua dioten eta ez dioten biztanleen analisia.....	46
Grafikoa 11. Donostiarrak sentitzen diren eta ez diren arrazoen jatorriaren analisia.....	47
Grafikoa 12. Donostiarrak sentitzen diren eta ez diren artean hiriko tradizioen mantentzearen inguruan dauden ezberdintasunak.....	48
Grafikoa 13. Donostiarrak sentitzen diren eta ez diren artean turismoari buruzko erabakien inguruan dauden ezberdintasunak.....	49
Grafikoa 14. Donostiarrak sentitzen diren eta ez diren artean Donostian bizitzeari buruzko erabakiaren inguruan dauden ezberdintasunak.....	50
Grafikoa 15. Donostiarrak sentitzen diren eta ez diren artean Donostiako turismo-estrategien inguruan dagoen parte-hartzearen ezberdintasunak.....	51
Grafikoa 16. Donostiarrak sentitzen direnak eta ez direnak zenbateraino sustatzen duten garapen turistikoa.....	53

Grafikoa 17.Ingurumen aspektuei buruz donostiarren pertzepzioa..... 54

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1. Turismoaren sailkapena, bisitatutako lekuaren eta turistaren jatorriaren arabera....	13
Taula 2. Espainiara iritsitako bisitari kopuruaren eboluzioa.....	15
Taula 3. Gipuzkoako hotelen sarreren eboluzioa.....	17
Taula 4. Turismoaren onuren analisia.....	33

1.SARRERA

1.1.Lanaren helburua eta motibazio pertsonalak

Azken urte eta hamarkadetan, nahiz eta orain dela gutxi arte bizi dugun pandemia honen eragin negatiboen ondorioz eman ez den, turismoa izugarri hazi den sektorea izan da. Espainia, bereziki, mundu mailan milioika turista erakartzen dituen herrialdea da eta Donostia da herrialdeko hiri erakargarrienetako bat turismoa burutzeko. Alde batetik, Gipuzkoako hiriburuan sektore turistikoaren hazkundeak eragin positiboak ekartzen ari da hirira, gehien bat ekonomikoak direnak eta batez ere gastronomiaren eskutik datozenak. Izan ere, Donostia hiri osotik zehar banatuta dauden kalitatezko jatetxe eta tabernengatik oso ezaguna da mundu-mailan, sektore gastronomikoaren pisua oso handia da hiri honen ekonomiarako, alegia.

Honen ondorioz, hiriak dituen beste hainbat eta hainbat arrazoiekin batera (dituen harezko hiru hondartzak edo euskal kultura ezagutzeko turistek izan dezaketen jakin-mina), Donostia geroz eta gehiago helburu turistiko paregabea bilakatzen ari da. Baina, bestalde, turismoaren hazkunde eta masifikazio honek ere eragin negatiboak ekar ditzake hiriarentzat eta, batez ere, bertako hiritarrentzat.

Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia, beraz, Donostiako biztanle edo hiritarrek turismoari buruz duten pertzeptzioa neurtzea izango da, haien aspektu psikologikoa apur bat aztertuz. Horretarako, biztanleek turismoaren inguruan duten pertzeptzioa neurtzen duten teoriak erabiliak izan dira, aspektu ekonomiko, sozio-kultural eta ingurumen aspektuak ukitzen dituztenak, hau da, Turismo Jasangarriaren hiru ardatzak direnak. Era berean, erabilitako teoria hauen frogapena burutzea Donostiaren kasurako izango da beste helburuetako bat.

Gradu Amaierako Lan hau, EHUko IKD (Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa) egitasmo batean txertatuta dago. Zehazki, *HIRISARE* deituriko IKD egitasmoren baitan egin da lan hau, hiri Turismo Jasangarria gaitzat harturik, GRAL kolaboratibo sare bat sortu duena. Egitasmo honen baitan, aurten bost Gradu Amaierako Lan burutu dira, eta aurreko deialdian beste hainbeste. Hauen emaitzetatik, hain zuzen ere, abiatu eta garatu ahal izan dira aurtengo deialdiko GRAL lanak, zenbait galdetegi eta emaitza jada erabiltzeko aukerari probetxua emanez.

Lanaren analisia burutu ahal izateko, Donostiako herritarrei egin zitzaien eta galdera eta aspektu oso ezberdinak lantzen dituen galdetegi batez baliatuko naiz. Galdetegi honen erabiliera IKD egitasmoari esker eman da. Izan ere, lehen aipatu bezala, beste urteetan garatutako GRAL-en emaitzak erabili ahal izan dira lan honen garapenerako eta, UPV/EHUko beste ikasle batzuek garatutako galdetegia da erabilia izan den emaitzetako bat.

Bestalde, UPV/EHUko beste klasekide batekin, Ivan Alberdi Martínezekin hain zuzen, burutu ditudan hiru elkarrizketetan lortutako informazioaz baliatuko naiz, zenbait atal eta datu borobiltzeko eta informazio osagarria lortzeko helburuarekin. Elkarrizketa hauek, Donostiako Helmuga Kudeaketaren Arduradunarekin, BiziLagun Ekin elkartearekin eta Ernai elkartearekin burutu ditugu.

Lan hau burutzeko ditudan motibazioei dagokienez, hasteko esan beharra dut turismoa beti gustatu zaidan aktibitate bat izan dela, batez ere, bidaiatzeko eta beste kultura ezberdinak ezagutzeko dudan jakin-min pertsonalarengatik bultzatuta. Hori dela eta, oso interesgarria iruditzen zait urtero, eta batez ere udan, hain gertutik bizitzen dudan Donostiako turismo masifikazio horren azterketa sakon bat egitea eta, aldi berean, bertako hiritarrek pentsatzen dutena eta haien pertzepzioa sakon aztertzea. Gainera, lan honen bitartez, gradu osoan zehar eskuratu ditudan trebakuntza eta gaitasunak praktikan jartzeko gai naizen ikusteak ere motibazio gehigarri bat suposatzen du niretzat.

1.2. Metodologia

Gradu Amaierako Lan honen garapenerako erabili dudan informazioa era egokian bilatu eta hautatu behar izan dut. Horretarako, lehen mailako informazio iturriez, hala nola, zientzia artikulua eta weborri ofizialeetatik ateratako estatistikak eta inkestak, eta bigarren mailako informazio iturriez, esate baterako, prentsa artikulua edo berriak, baliatu naiz. Modu honetan, turismoari buruzko kontzeptu tekniko garrantzitsuenak, sektorearen datu esanguratsuenak eta egoiliarrek turismoarekiko duten jarrera neurtzen duten teoria nagusiei buruzko informazioa barneratzea lortu dut, ondoren lanaren analisi enpirikoa hobetu ulertu eta aztertu ahal izateko.

Donostiarrek turismoaren inguruan duten pertzepzioa sakon aztertzeko, hau da, analisi kuantitatiboa burutu ahal izateko, IKD egitasmoari esker erabili ahal izan dudana ikasleek sortutako inkesta batez baliatu naiz. Inkesta 67 galderaz dago osatua Likert eskala erabiliaz, non hiritarrek 1etik 5era erantzun behar izan zuten galdera bakoitzean zuten adostasun-maila azalduaz, Donostiako hiritarren pertzepzioa ezagutzeko helburuarekin. Inkesta hiriko 160 biztanleei egin zitzaizkien, adin, sexu eta hainbat auzo ezberdinetakoak izanik.

Biztanleen turismo-jarrera neurtzen duten aztertutako teoria nagusiek jasangarritasunaren hiru ardatzak ukitzen dituzte, hau da, aspektu ekonomiko, sozio-kultural eta ingurumenekoak. Horrela, Donostiako biztanleek turismoaren inguruan duten iritzia aztertzerako orduan, hiru aspektu horien arabera burutuko da analisia. Gainera, teoria horiek Donostiaren kasuan aplikagarriak diren ala ez ikusiko da. Burututako hiru elkarrizketei dagokienez, informazio osagarri moduan erabiltzea izango da helburua, era orokorrean azalduz eta bestelako ikuspuntu ezberdinak ezagutzeko helburuarekin. Izan ere, elkarrizketetatik lortutako informazioak nire interpretazio eta iritzietan eragina izan du. Ondoren, Excel herra mintaren bidez, erantzunak aztertu eta grafikoaren bidez bisualizatu dira, inkestaren analisi sakon bat burutzeko.

Azkenik, aipatzekoa da Gradu Amaierako Lan hau burutzeko erabili den talde-dinamika, IKD egitasmoaren talde-lan kooperatiboaren parte izan dena. Lanaren burutze-prozesu osoan zehar, bost ikasleez eta bost irakasleez osatutako talde-mintegiak burutu dira. Horietan, ikasleok gure aurrerapenen inguruan hitz egiten joan gara, irakasleen *feedback*-a eta iritzia entzutearekin batera. Modu honetan, beste ikasleengandik ideiak hartu ahal izan ditugu eta, era berean, irakasleen iritzi eta gomendioen bitartez, gure Gradu Amaierako Lana osatzen joan gara. Pertsonalki, talde-mitegi hauek asko lagundu didatela esan beharra dut. Alde batetik, nire taldekideen aurkezpenen bitartez nire lan pertsonalerako ideiak hartu ahal izan ditut, hobekuntzak burutzeko aukera izatearekin batera. Bestalde, egutegi finko bat izateak neure burua antolatzen lagundu dit, lana egunera eramanaz eta azken momentuko ustekabeak ekidituz.

1.3.Egitura

Lan honen egiturari dagokionez, hasteko turismoaren kontzeptua eta historian zehar izan duen bilakaera orokorra azaldu dira, sektorearen geroz eta garrantzi handiagoa goraiatuz. Ondoren eta Donostiako hirian zentratuz, bai Espainian eta bai Donostian sektore turistikoak izan duen bilakaera aztertu eta azaldu da, gaur egun duen egoera azaltzearekin batera.

Sektore turistikoak gaur egun duen garrantzia azaldu ondoren, egoiliarren pertzepzioa Turismo Jasangarriarekin lotu da, kontzeptua azalduz eta sektoreak jasangarria izateko gaur egun duen beharra planteatuz. Horretarako, biztanleek turismoaren inguruan duten pertzepzioa azaltzen duten bi teoria nagusi azaldu eta aztertu dira.

Behin Donostiako turismoaren egoera kontextuan jarrita, hau da, atal teorikoa burututa, analisi enpirikoa burutu da. Horretarako, Donostiako 160 biztanleei egindako inkesta erabili da, hiru elkarrizketetatik lortutako informazioa erabiltzearekin batera. Atal honetan, Donostiako hiritarrek turismoarekiko duten jarrera neurtu da Turismo Jasangarriaren hiru ardatz nagusietatik eta teorioren eskutik.

Azkenik eta atal enpirikoan lortutako datu eta analisiekin, donostiarrek turismoaren inguruan duten pertzepzioari buruzko ondorio nagusiak atera eta aztertu dira, etorkizunari begira zenbait planteamendu eta gomendio aurkeztearekin batera.

1.4.Esker onak

Eskerrak eman nahi dizkiet talde-mintegia osatu duten gainerako ikasleei eta irakasleei, batez ere, Aitziber Etxezarretari nire zuzendaria izateagatik, prozesu osoan zehar emandako gomendio eta laguntza guztiagatik eta IKD egitasmoan parte-hartzeko aukera emateagatik. Bestalde, Ivan Alberdi eta Ibon Garmendiari eskerrak eman nahi dizkiet gradu osoan zehar nire ondoan egoteagatik eta ahal izan duten guztian haien laguntza eskaintzeagatik.

2.TURISMOAREN EGOERA ETA BILAKAERA

2.1.Turismoaren kontzeptua eta bilakaera

Gaur egun, esan dezakegu ukaezina dela sektore turistikoak duen garrantzia. Hala ere, turismoaren sorrera berri samarra da eragile sozio-kultural gisa (*Moreno, 2011*). Gainera, kontzeptu honi buruzko ikerketak berri samarrak dira ere. Honek, noski, badu bere azalpena. Izan ere, ez zen XX. mendearen hasiera arte kontzeptu honen berririk. Garai hartan, “hogeit urte zoriontsuak” bezala ezagutzen den garaian, mundua hazkunde ekonomiko garrantzitsu batean murgilduta zegoen eta, globalizazioarekin batera, pertsonen mugimendua areagotzen hasi zen, batez ere garraioaren garapenaren eskutik etorri zelarik.

Aktibitate turistikoak, bere planifikazio eta garapenari dagokionez, herrialdeei pobreziatik ateratzen eta bizi hobek sortzen lagundu ditzake. Era berean, hazkunde ekonomikoa eta inbertsio lokala sustatzeko botere edo indar nahikoa du aktibitate turistikoak. Horrela, honek, lan aukera ugariak, errenta banaketa eta nekazaritza, artisautza edo arrantza bezalako aktibitate ekonomikoen bultzada nabaria ekar dezake. Modu honetan eta hazkunde honi esker, BPG-aren sorkuntzan, ordainketa banlantzean eta bestelako adierazle makroekonomiko askotan eragina izango du (*Moreno, 2011*).

Walter Hunziker eta Kart Krapf-ek burututako turismoari buruzko definizioaren arabera, turismoa pertsonen denbora mugatuko eta haien bizilekutik kanpo emandako desplazamenduen ondorioz sortzen diren harreman eta fenomenoek multzoa da, beti ere irabazi-asmorik gabe egiten bada (*Moreno, 2011*).

Bestalde, definizio eguneratuago bat ere aztertu dezakegu, Munduko Turismo Erakundeak emandakoa (*United Nations World Tourism Organization*), hain zuzen. Erakunde honen arabera, turismoa fenomeno sozial, kultural eta ekonomikoa da, pertsonen desplazamendua suposatzen duena beste herrialdeetara edota haien inguruneetatik kanpo, arrazoi pertsonal edo profesionalek bultzatuta. Pertsona horiei “bidaiari” bezala ezagutzen zaie eta turismoak bidaiari horiek burutzen dituzten ekintza guztiak biltzen ditu (*UNWTO, 2022*).

Turismoaren sailkapen eta formei dagokienez, hainbat formatako sailkapena burutzen du Munduko Turismo Erakundeak, datuak homogenizatzeko eta internazionalki konparatzeko helburuarekin. Bestalde, turismoaren egitura edo sailkapena turistaren etxebizitza-egoitzaren eta desplazamendu motaren arabera da (*Acerenza, 2006*). Horrela, Acerenzaren (2006) arabera, honako sailkapen hau dugu:

- Barne turismoa: Egoiliarrek haien herrialdearen (erreferentziazko herrialdea) lurralde ekonomikoan zehar desplazatzean sortzen den turismoa da.
- Turismo hartzailea/errezeptorea: Turismo mota hau ez egoiliarrek erreferentziazko herrialdera bidaiatzen dutenean ematen da.

- Turismo igorlea: Egoiliarrek erreferentziazko herrialdea ez den beste herrialde batera bidaiatzean sortzen den turismo mota da.
- Barruko turismoa: Bai egoiliarrek eta bai ez egoiliarrek erreferentziazko herrialdean zehar desplazatzen direnean ematen da. Turismo mota honek barne turismoa eta turismo hartzailea barneratzen ditu.
- Turismo nazionala: Egoiliarrek erreferentziazko herrialdearen lurralde ekonomikotik barne eta kanpo burututako turismoa. Hau da, barne turismoa eta turismo igorlea barneratzen dituen turismo mota.
- Turismo internazionala: Turismo hartzaileak eta igorleak osatzen dute.

Taula 1.

Turismoaren sailkapena, bisitatutako lekuaren eta turistaren jatorriaren arabera.

Turistaren jatorria			
Bisitatutako lekua	Egoiliar	Ez egoiliar	
Erreferentziazko herrialdea	Barneko/interno	Hartzaile/errezeptore	Barruko
Erreferentziazko herrialdetik kanpo	Igorle		
Turismo Nazionala			
Turistaren jatorria			
Bisitatutako lekua	Egoiliar	Ez egoiliar	
Erreferentziazko herrialdea		Hartzaile/errezeptore	Internazionala
Erreferentziazko herrialdetik kanpo	Igorle		Internazionala

Iturria: Autoreak egina Acerenza, M. A. (2006). Conceptualización, Origen Y Evolución Del Turismo. México: Trillas-etik lortutako informazioaren bitartez.

Gaur egun, turismoa hazkude ekonomiko handiena duen sektoreetako bat da eta, aldi berean, diru-sarrera handiak suposatzen dituen sektore bat da, batez ere garapen bidean dauden herrialdeentzako (UNWTO, 2022).

Hala ere, COVID-19-a dela eta, sektore turistikoa kaltetuenetako bat izan da. Hori dela eta, orain errekuaratze edo suspertze prozesu batean murgilduta dago. Munduko Turismo Erakundeak adierazi duenez, turisten iritsierek %74 bateko jaitsiera bat izan dutela estimatzen da 2020 urtean aurreko urteari dagokionez. Honek izugarritzko eragin negatiboa izan du, batez ere, Amerika eta Asia-Ozeano Bare aldean kokatutako herrialde turismo-dependenteentzako. Izan ere, aktibitate hau izugarri garrantzitsua da herrialde hauetako ekonomientzat (*IMF, 2021*).

Pandemiaren aurreko urteetan sektore turistikoaren pisua munduko BPG globalean %10,4 ingurukoa zen, garbi adierazi duen moduan *World Travel & Tourism Council*-ek (*WTTC*). Hala ere, modu esanguratsu batean erori da pandemia garaian. Dena dela, badirudi errekuarazio-prozesu horren amaieran gaudela, datuen hobekuntza dela eta.

2.2. Turismoaren egoera eta bilakaera Espainian

Orain dela hainbat urteetatik, 2017. urtetik hain zuzen, Espainia munduko bigarren herrialde bisitatuena da urtero jasotzen dituen 80 milioi turistei esker, soilik Frantziaren atzetik dagoelarik. Estatu Batuek eta Txinak jarraitzen dute Espainia (*ICEX, 2020*). Gainera, 2015. urtetik Espainia liderra bilakatu da munduko turismo rankingean. Izan ere, munduko 140 ekonomien artean lehen postuan kokatzen da *World Economic Forum*-ek sortutako podiumean, sektore turistikoan lehiakorrenak diren herrialdeak saritzen dituen rankingean, hain zuzen (*Bruce-Lockhart, 2019; Crotti eta Misrahi, 2015*).

Turismoak Espainian duen arrakasta hiru gakoetan dago zentratua, WEF-en arabera, gainontzeko herrialdeengatik bereizten duena: kulturen eta naturan duen eskaintza zabala, dituen azpiegitura paregabeak eta hotel eta garraioan duen kalitatea.

Espainiak sektore turistikoan duen gaur egungo egoera aztertzerako orduan, kontuan izan behar da COVID-19-aren pandemiaren ondorioz portzentaiak zerbait irrealak izango direla. Izan ere, pandemia urteetan egon diren bidaia murrizketen ondorioz, sektore turistikoaren beherakada izugarria izan da eta, beraz, sektoreak orain pairatzen ari duen hobekuntza dela eta, igoera-portzentaiak exponentzialki handitu dira.

2021. urtean 51.631.377 turista internazional heldu ziren Espainiara, aurreko urtearekiko, hau da, 2020 urtearekiko, %50,06ko igoera izan duelarik. Pandemiaren aurreko urteak hartzen baditugu, 2019. urtean 126.170.086 turista iritsi ziren Espainiara. 2021. urteko datuak 2019 urtekoekin adieratuz, %59,07ko jaitsiera nabarmena izan du. Hemen ikusi dezakegu argi eta garbi pandemiak izan duen eragin negatiboa sektore turistikoan eta bisitari kopuruen etorreran (*Movimientos Turísticos en Fronteras FRONTUR, 2022; Instituto Nacional de Estadística, 2022*).

2021ean iritsitako turisten artean, Frantziatik etorritako turistak izan ziren nabarmenduenak, 17.064.051 turista iritsi zirelarik. Jarraian, turista portugesak eta alemaniarrek egon dira nagusien artean, 6.444.398 eta 5.642.205 turistekin hurrenez hurren. Ailegatuen %60,39a turistak izan ziren, hau da, gutxienez gau bat igaro zuten herrialdean eta gainerakoak txangozaleak izan ziren (%39,6). Turista gehienek aisialdirako helburua duten bidaiak burutu zituzten, helmugen artean Balearrak, Kanariak eta Kataluña nagusitu zirelarik (*Movimientos Turísticos en Fronteras FRONTUR, 2022; Instituto Nacional de Estadística, 2022*).

Aurten (2022) orain arte 9.548.768 turista internazionalak zapaldu dute gure herrialdea, %446ko igoera izan duelarik aurreko urtearekiko (*Movimientos Turísticos en Fronteras FRONTUR, 2022; Instituto Nacional de Estadística, 2022*).

Taula 2.

Espainiara iritsitako bisitari kopuruaren eboluzioa.

Urtea	Bixitari kopurua (milioika)	Hazkundera
2015	22.788.232	
2016	115.561.077	507,11%
2017	121.717.286	5,33%
2018	124.455.666	2,25%
2019	126.170.086	1,38%
2020	34.406.971	-72,72%
2021	51.631.377	50,06%
2022 (martxoa)	9.548.768	446%

Iturria: Autoreak egina Frontur eta INE-tik lortutako datuen bitartez.

Sektorearen gastuari dagokionez, argitaratutako azken datu ofizialak 2020. urtekoak dira. *Instituto Nacional de Estadística*-ren arabera, sektore turistikoaren aktibitateak 61.406 milioi euroko pisua izan zuen 2020. urtean, Barne Produktu Gordinaren %5,5a suposatu zuelarik, 2019. urtean baina zazpi puntu gutxiago hain zuzen (%12,4). Datu hauetan ere argi eta garbi ikusi dezakegu COVID-19-aren pandemiak sektorean izandako eragin negatiboa. Bestalde, turismoaren adar nagusiek 2,23 milioi lanpostu mantendu zituzten ERTE-en laguntzari esker espainiar ekonomiaren lanpostu guztien %11,8a suposatuz, aurreko urtean baina bederatzi dezima gutxiago (*Instituto Nacional de Estadística, 2022*).

2.3. Turismoaren egoera eta bilakaera Donostian

Donostiako hiriaren ezaugarri nagusienetakoa bere kokapen geografikoa da. Kantauri Itsasoaren kostaldean kokatua, zoragarriak diren hiru hondartzekin, gastronomia itzelarekin eta mendi ugari eta ederrez inguratua dagoelarik. Historikoki Donostia beti izan da turistentzako helmuga erakargarri bat. Hala, Espainiako Estatuan udaldia kostan igarotzeko joera Donostian hasi zen XIX. mendearen amaieran. Hiriaren paisai eta klima erakargarriak zirela eta, Espainiako erregetzaren eta aristokraziaren kide askok haien udarak Donostian igarotzen hasi ziren, gero eta hiri erakargarriagoa bihurtuz turistentzako (*Pagola, 2019*).

Beste alde batetik, gastronomiaren hazkundera ere eragin nabarmena izan du Donostiako turismoaren etorreran. Izan ere, Gastronomiako Lizentziatura lortzeko lehen unibertsitatea eta bakarra du Donostiak. Gainera, 19 Michelin Izarrekin daude sarituta hiriko hiru jatetxe famatu. Azkenik, hiri osotik banatuta dauden eta pintxo bikainak eskaintzen dituzten tabernek ere hiri hau turismoa burutzeko erakargarriagoa bihurtzen dute, euskal kultura gastronomikoa landuz eta eskainiz.

Jakina da 2019. urtea Donostiako turismoarentzat urte paregabea izan zela, Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) argitaratu zuen moduan. Baina, 2021eko datuak hobeak izan dira. Gipuzkoari dagokionez, nahiz eta bidaiarien hazkunde gutxien jasan duen euskal lurraldea izan, 2019ko datuei gehien gerturatzen den lurralde historikoa da, pandemia garaian bidaiari gutxien galdu zituen lurraldea izanik. Turistek 2021eko udaran hoteletan eragindako okupazioa %49,1ean handitu da 2020ko datuekin konparatuz, 387.739 hotel-sarrera erregistratu zirelarik. Gainera, pandemia aurreko udaran baina 4.000 bisitari gutxiago bakarrik erregistratu dira (391.886 hotel-sarrera), turismoa erreperatzen ari denaren seinale. Euskal Estatistika Institutuak argitaratutako 2021eko iraileko datuei erreparatuz, Gipuzkoak 113.983 hotel-sarrera izan zituela ikusi daiteke, %83,2ko hazkundera suposatu zuelarik aurreko urtearekiko, turismo internazionalari esker nagusiki. Behin turisten mobilitatea gogor zigortzen zuten mugak ezabatuta, turismoa Gipuzkoako kaleetara itzuli da 2020.eko datuak bikoizteko helburuarekin. Gipuzkoan erregistratuak izan diren 113.983 sarrera horietatik, 48.115 sarrera turista kanpotarrei dagokie, hau da, penintsulatik kanpo etorritakoei, %157,6ko hazkundera suposatuz (*Eustat, 2022*).

Azterketarekin jarraituz, nabarmentzekoa da Gipuzkoan 2021ean gauigaroetan eman den hazkundera, lehen aipaturiko hotel-sarreraren hazkunderaz aparte. Izan ere, 2020ko datuekin konparatuz, %59,7 batean handitu dira gauigaroak. Hala ere, hazkunde hau ez da nahikoa izan 2019ko udarako datuak gainditzeko, non 881.209 gauigaro erregistratu ziren eta 2021ean 812.830 soilik. Alde honetatik, gauigaroei dagokien portzentaien diferentzia handiagoa izan da 2019tik 2021era (%7,76 gauigaro gutxiago), lehen aipatutako hotel-sarreraren diferentzia txikiarekin alderatuz gero (soilik %1,1). Azkenik, bisitarien batazbesteko geldialdia 2,10 egunetakoa izan da 2021ean, 2019 eta 2020 urteetan 1,95 eta 2,25ekoak izan zirelarik, hurrenez hurren (*Eustat, 2022*).

Datu hauek mahai gainean izanda, Gipuzkoak datu harrigarriekin itxi du 2021eko udara eta, nahiz eta 2019. urteko datuak ez gainditu, haiekiko dagoen gertutasunak hazkunde eta optimismo baterako bidea irekitzen du, jakinda, gainera, sektore turistikoa kaltetuenetakoa izan dela pandemiaren ondorioz.

Bestalde, Donostiako datuei erreparatzen badiegu, Gipuzkoakoak baina hobeak dira. Izan ere, Donostiak 2019. urteko datu paregabeak gainditu ditu eta, alde honetatik, turista internazionalen diferentzia oraindik eta handiagoa da aurreko urtearekin konparatuz. Oroarki, 228.326 gauigaro erregistratuak izan dira 2021eko irailean, aurreko urtean baina %96,4 bat gehiago. Datu berber hauek turismo internazionalera eramanaz, hazkundea %179,1ekoa izan da.

2022ko maiatzaren 20ean Eustatek 2022ko datuak ere argitaratu ditu. Gipuzkoako hotelen sarrerek %215,9ko hazkundea izan dute 2022ko apirilean aurreko urteko hilabete berarekin konparatuz, 120.682 sarrera izan direlarik. Gauigaroei dagokienez, %229,2ko hazkundea eman da. Horrela, turismoa pandemiatik errekeratzen ari dela garbi ikusi daiteke (*Eustat, 2022*).

Taula 3.

Gipuzkoako hotelen sarreren eboluzioa.

Urtea	Hotel Sarrerak	Hazkundea (%)
2011	863.591	-
2012	865.609	0,2
2013	881.547	1,8
2014	922.480	4,6
2015	1.002.158	8,6
2016	1.093.235	9,1
2017	1.098.525	0,5
2018	1.176.754	7,1
2019	1.250.594	6,3
2020	538.660	-56,9
2021	905.135	68,0

Iturria: Autoreak egina EUSTAT-etik lortutako datuen bitartez.

3.TURISMO JASANGARRIA

Lehen aipatu bezala, sektore turistikoak izugarrizko garapena izan du azken urteotan Espainian, munduko bigarren herrialde bisitatuena bihurtu delarik. Lanpostuak sortzen ditu, bertako komunitateetan diru-sarrera ugariak sortarazten ditu, kulturen arteko interakzioa sustatzen du eta azpiegiturak hobetzen laguntzen du (*Andereck, Valentine, Knopf eta Vogt, 2005*). Baina, beste alde batetik eta naiz eta onura ugari ekartzen dituen sektorea izan, eragin ekonomiko, sozio-kultural eta ingurugiroko eragin negatibo asko sorrarazten dituen sektore bat da (*Choi eta Sirakaya, 2005; Nunkoo eta Ramkissoon, 2010*).

Izan ere, Espainiako hiri bisitatuenetan turismo-masifikazioak ikustea geroz eta ohizkoagoa da eta, nahiz eta honek ekarpen positiboak eragiten dituen, batez ere ekonomikoak direnak, negatiboak ere ekar ditzake, ondorio horiek ekonomikoak, sozio-kulturalak eta ingurugirokoak izanik. Gainera, ematen ari den turismo-masifikazio honen eraginez, Turismo Jasangarri baten alde egiteko ezinbestekoa da hiri bisitatuenetan bertako biztanleek sektoreari buruz duten pertzepzioa edo iritzia aztertzea, hau da, turismoaren aspektu psikologikoa sakon miaztea.

3.1.Turismo Jasangarri bat eraikitzeke beharra

Munduko Turismo Erakundearen arabera, turista internazionalen iritsierak %7ko hazkundea pairatu zuten 2017. urtean, 1.322 milioi turista izatera iritsi arte. Gainera, Munduko Turismo Erakundeak 2020ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuetan, sektore turistikoaren hazkundea nabarmentzen zen hamargarren urte jarraituaz, %4koa izanik 2018 urtearekiko eta 1.500 milioi iritsieretara ailegatu arte. Honek, sektore turistikoaren posizio indartsua baieztatzen du, sektore ekonomiko bultzatzaile eta hauskaitz bat bihurtuz. Izan ere, turismoak 1,4 bilioi dolar mugitzen ditu urtero eta ondasun eta zerbitzuen exportazio globalen %7a suposatzen du. Hau guztia dela eta, turismoaren hazkundea era arduratsu batean zuzentzea geroz eta beharrezkoagoa da, sektoreak eskaintzen dituen aukerak modu egokienean aprobetxatu ahal izateko (*UNWTO, 2020*).

Hala ere, sektore turistikoaren eragin guztiak ez dira positiboak. Gauzak horrela, hemen sortzen da Turismo Jasangarri bat eraikitzeke gaur egun dagoen beharra. Munduko Turismo Erakundearen arabera, Turismo Jasangarria bai gaur egungo eta bai etorkizuneko ondorio ekonomiko, sozial eta ingurumen arlokoak kontuan hartzen dituen turismoa da, bisitarien, industria osoaren eta anfitrioi diren komunitateen beharrak asebetetzen dituelarik (*UNWTO, 2022*). Beraz, Turismo Jasangarriak honako hau esan nahi du: sektorea ekonomikoki, sozio-kulturalki eta ingurumenari dagokionez jasangarria izatea, hiru aspektu horien azterketa sakon bat burutuz, denboran zehar iraun dezaten etorkizuneko belaunaldiak kaltetu gabe.

Munduko Turismo Erakundearen arabera, sektoreak sortarazten dituen ondorio ekonomiko negatiboak ugariak dira. Hasteko, aukera-kostuaren aipamena egiten da, hau da, turismoaren errekurtsuak beste erabilera batzuetatik aldentzen dira eta, kasu askotan errekurtsuen ez-erabilera ematen da. Bizi-mailaren kostuaren hazkundera eta sektorearen ondorioz sortutako tentsio inflazionistak ere inpaktu ekonomiko negatiboaren artean egongo liriteke. Turismoak eragindako hazkundera ekonomikoak aldi berean prezioen igoera bat ekar dezake, bertako populazioan eragina izango duelarik (*Cardona, 2012*). Azkenik, eskari turistikoak sortutako fluktuazioen kostuak aipatzen dira, sektoreak sortarazten dituen estazionalitate turistikoaren ondorioz sortuak (*Agüera, 2014*).

Kostuen artean, egoiliarren pertzepzioan eragin negatibo esanguratsua izan dezaketen batzuk aurkitzen dira, turismoarekiko dependentzia ekonomikoa eta lanpostuen egoera izanik. Sektorearen dependentzia ekonomikoa aztertuz, Murphy-k (1985) dioenez, dependentzia ekonomikoak eragin esanguratsua du egoiliarrek turismoarekiko duten pertzepzio eta jarreraren, kasu askotan harreman positibo bat aurkitzen delarik dependentzia ekonomiko horren eta bertakoek turismoarekiko duten onespeneraren artean. Ondorioz, sektorean inplikaturako biztanleak alde-aurretiko jarrera positibo bat erakutsiko dute sektoreari dagokionez (*Cardona, 2012*).

Turismoaren dependentzia ekonomikoaren eta sektorearekiko jarreraren arteko harremana bi ikuspegi ezberdinez ulertu daiteke. Alde batetik, sektore turistikoa izan da herriari egoera ekonomiko kaskar batetik ateratzen lagundu dion sektore ekonomiko nagusia eta, ondorioz, sektorea sostengatzeko joera bat sortzen da (*Milman eta Pizam, 1988; Pizam, 1978*). Bestalde, sektore ekonomiko egonkor bakarra izatearen egoera eman daiteke. Biztanleak kontziente dira bai gaur egungo eta bai etorkizuneko sektore ekonomiko egonkor bakarra turismoa dela eta, beraz, hura sostengatzea da haien aukera bakarra. Ez dago alternatibarik eta tolerantzia egoera batean sartzen dira, sektorearekiko dependentzia izanik. Kasu honetan eta, nahiz eta sektorea sostengatzen duten, sektoreak sortarazten dituen inpaktu negatiboaren jabe dira egoiliarrek.

Lanpostuen egoera ikusiaz, aditu askoren usteetan, sortutako lanpostu gahienak estazionalak dira, hau da, turista gehien dauden momentuan soilik sortzen dira, batez ere, udaran edo oporraldietan sortutako lanpostuak (*Gruter, 2013*). Gainera, sortutako lanpostuak kualifikazio gutxiak dira eta langileek baldintza kaskarretan lan egiten dute. Bestalde, lanpostu hauek "neke psikologikoa" sortzeagatik dira ezagunak, pertsona ugarirekin izandako kontaktuaren ondorioz sortuak. Faktore guzti hauek langileen pertzepzio negatiboan eragiten dute (*Cardona, 2012*).

Inpaktu sozio-kultural negatiboen mailan, kasu askotan egoiliarrek haien kultura zabaldu eta mantentzeko aukera paregabe bezala ikusten dute turismoa. Baina beste kasu askotan, efektu negatiboak azaldu daitezke bertako komunitateen jarrera eta tradizioei dagokienez. Inpaktu negatibo hauek gaingarapen turistikoa, asimilazio kulturala, gatazka kulturala eta xenofobia eta eskualdeko kulturaren berreraikitze artifiziala dira (*Cardona, 2012*).

Turismoaren aktibitateetan kultura eta maila sozio-ekonomiko oso ezberdinak dituzten pertsonen arteko kontaktua ematen da. kasu askotan, egoiliarren eta turisten arteko diferentzia hauek oso handiak izaten dira eta ondorioz, elkarren arteko harremana eta ulermena jarrera negatiboen eta antipatiarengatik ordezkatuak izaten dira. Beste alde batetik eta nahiz eta turismoak kulturak mantentzen lagundu dezakeen, askotan sektoreari soilik bideratutako aktibitate komertzialak garatzen dira, bertako joerek, kulturak eta tradizioek ezarritakoak baino. Ondorioz, kulturaren berreraikitze artifizial bat sortzen da, turisten beharrak asebetetzera bideratua.

Egoiliarrei eragindako eragozpenak ere turismoak eragindako inpaktu sozio-kultural negatibo gisa ulertzen dira. Eragozpen horiek gehiegizko soinua, alkoholismoa, kontrabandoa eta drogen kontsumoa, harrokeria edo jarrera desatseginak bertakoekiko, jabetza pribatu eta publikoen hausteak, borrokak, etab. izan daitezke. Guzti hauek eragina izango dute egoiliarrek turistekiko duten pertzepzio eta jarreraren, jarrera hauek negatiboagoak izango direlarik bertakoak sektore turistikoarekin harreman laborala duten neurrian (*Pizam, 1978*).

Ingurugiroari dagokionez, sektorearen hazkundearen ondorioz turismoa munduan gehien kutsatzen duen industria edo sektoreen artean kokatu da Munduko Turismo Erakundeak adierazi duen moduan, negutegi efektua eragiten duten gasen emisio globalen %8ko pisua duelarik (4.500 milioi CO₂ tonelada metriko) eta emisio horien %12a hegaldiei dagokielarik, azken hauek izanik eragin handiena dutenak. Gainera, adituek dioten moduan, sektorearen eragina %40 batean haziko da 2025 bitartean 6.500 milioi CO₂ tonelada metrikoetaraino iritsi arte, politikak eta ohiturak aldatzen ez diren bitartean (*Lenzen eta beste batzuk, 2018*).

Nature Climate Change aldizkarian argitaratua izan den ikerketa honek 160 herrialdeen datuak bildu ditu eta, horien arabera, hegazkinen bitartez egindako bidaiak sektore turistikoak eragiten duen guztizko kutsaduraren %12a suposatzen dute.

Sektore turistikoak ingurumenean duen eragina edo inpaktua neurtu duen azken ikerketa honen aurretik egindako gainerako ikerketek soilik karbono dioxidoaren emisioak kontabilizatzen zituzten, negutegi efektua eragiten duen gas nagusia izanik. Ikerketa hauen arabera, turismoak munduko karbono aztarnaren %2,5-%3a soilik irudikatzen du. Alabaina, ikerketa berri honek negutegi efektuan eragin zuzena duten gainerako gasen emisioak ere kontuan hartu ditu, turismoaren jarduerarekin zerikusia dutenak noski. Esate baterako, azpiegituren mantentze-lanekin (hotelak eta aeroportuak) edo elikagai, edari edo turistentzako oroitzapen oparien erosketarekin zerikusia duten gasen emisioak kontuan hartu ditu, sektorearen eragin negatiboa %8raino handituz (*Lenzen eta beste batzuk, 2018*).

Sektoreak eragindako kutsaduraz gainera, ingurugiroan inpaktu negatiboa duten beste hainbat faktore ere daude. Horien artean, ingurumenaren narriadura fisikoa aurkitzen da. Turismoa bezalako aktibitate ekonomiko batek eragindako gehiegizko soinua (kutsadura akustikoa), suntsitze ekologikoa, eta leku historiko eta arkeologikoen narriadura nabarmena dira narriadura fisikoa eragiten duten faktoreetako batzuk.

Bestalde, leku turistiko askotan soilik sektorearen erabilerarako sortutako eraikin eta azpiegiturak daude eta horrek, inpaktu ekonomiko negatiboen atalean ikusitako moduan aukera-kostu bat sortzeaz gainera, azpiegitura horiek ez dira bertako paisaian integratzen eta eragin negatiboa izan dezakete, ingurumenaren narriadura areagotuz (*Cardona, 2012*).

Azterketa ekonomiko, sozio-kultural eta ingurugiroko hau burutu ondoren, argi eta garbi dago Turismo Jasangarri baten garapena beharrezkoa dela gure planeta zaindu nahi badugu eta sektorearen biziraupena bermatu nahi bada.

3.2. Turismo Jasangarri baterantz

Aurreko ataleko datuak aztertuz, ebidentzia nahikoa dago Turismo Jasangarri baten alde apustu egiteko beharra dagoela. Hori dela eta, munduko hainbat erakunde, herrialde eta organizazio lanean jarri dira, zenbait ekintza, inizatiba edo estrategia aurrera eramanez. Alde honetatik, globalki Munduko Turismo Erakundea da Turismo Jasangarriago baten alde gehien apustu egiten ari den erakundea. Izan ere, ekintza ugari ditu martxan turismoa jasangarritasunerantz eramateko helburuarekin, garrantzitsuenak hurrengoak izanik:

- Klimaren aldeko ekintza: Sektore turistikoa negutegi efektua eragiten duten gasen emisioen eragile esanguratsua da. Horregatik, klimaren aldeko ekintza indartzea eta azkartzea oso garrantzitsua bilakatu da sektorearen erresilientzia bermatzeko. Klimaren aldeko ekintzetaz hizt egiten dugunean, negutegi efektua eragiten duten gasen emisioak neurtzeko, kontrolatzeko eta murrizteko Munduko Turismo Erakundeak aurrera eramaten ari den ekintzez ari gara hizt egiten.

Honen harira, Munduko Turismo Erakundearengatik lideratua eta *Travel Foundation* eta *red One Planet*-en laguntzaren bitartez, beste 450 erakunderekin “*Glasgow-ko adierazpena klimaren aldeko ekintzaren alde*” sinatu dute. Adierazpen honen bitartez, karbono dioxidoen emisioak %50 batean murrizteko helburua dute 2030. urterako eta emisioen %100aren murrizketa bat lortzeko helburua ere ezarri dute 2050 urtea baino lehen (*UNWTO, 2022*).

- Turismo eta plastikoei buruzko ekimen globala: Ekimen honen bitartez, Munduko Turismo Erakundeak beste 100 erakunde baino gehiagorekin sektore turistikoak sortzen dituen plastikoen murrizketa baterako hitzarmena sortu dute. Modu honetan, enpresek, gobernuek eta turismoaren beste agente batzuek birziklatu daitezkeen plastikoen erabilera sustatzeko konpromezua hartu dute, plastikoen erabilera murrizteko konpromezua hartzearekin batera. Sektorean erabiltzen diren plastikoen %100a birziklatuak eta berrerabiltzeko aukera dutenak izatea da 2025erako hitzarmenaren helburua (*UNWTO, 2022*).
- Hotelentzako konponbide energetikoak: *Hotel Energy Solutions (HES)* Munduko Turismo Erakundeak, Nazio Batuen talde eta Europar Batasuneko gainerako erakunde batzuekin aurrera eraman duen proiektu bat da. Honen bitartez, sektore turistikoan jarduten duten enpresa txiki eta ertainei efizientzi energetiko eta energia berriztagarriari buruzko informazioa, laguntza tekniko eta formazioa eskaintzen zaie. Proiektu honen helburua Europar Batasuneko eta 2007ko *Davos Prozesuaren* erronka energetikoei erantzutea da. Izan ere, sektore turistikoak orokorrean igortzen dituen eta negutegi efektuaren erantzule diren gasen %2-%5 artean hotelek eta bestelako ostalduak igortzen dituzte eta hauek murriztea da proiektuaren helburu nagusia (*UNWTO, 2022*).
- *One Planet*, Turismo Jasangarriaren aldeko Programa: 2015. urtean martxan jarri zen ekimen honen helburua sektore turistikoaren politika eta praktiketan, produkzio eta kontsumo jasangarriak azkartzea da, honen bitartez kutsadura, biodibertsitatearen galera eta klima aldaketaren gaiei helduz. Beraz, programa honek ekonomia zirkular eta Turismo Jasangarri batera heltzeko laguntza eskaintzen du (*UNWTO, 2022*). Produkzio eta kontsumo jasangarri batzuen kontzeptuak guztien beharrak asebetetzeko helburua du baliabide natural gutxiago erabiliak (energia eta ura barne) eta kutsadura eta hondakin gutxiago sortuz. Errekurtsoen erabilpen efizienteago bat sustatzean datza, praktika jasangarriago batzuk sustatzearekin batera (*Programa de Turismo Sostenible de One Planet, 2020*).

Beste alde batetik, COVID-19aren pandemiaren ondorioz sektore turistikoa kaltetuenetako bat izan da, irizpide sozio-ekonomikoak kontuan hartzen baditugu. Hori dela eta, Munduko Turismo Erakundeak *One Planet Programaren* bisio berria eraiki nahi du sektorearen errekupeazio jasangarri baterantz joanez. Bisio berri honek sektorearen errekupeazio jasangarria bultzatu nahi du, horretarako errekupeazio-planen sorkuntzan eta exekuzioan lagunduko duelarik, Parisko Akordioaren helburuak eta Garapen Jasangarriko Helburuak (SDG) betetzen laguntzeaz aparte. Garapen Jasangarriko Helburuei dagokienez, programak 12, 13, 14 eta 15. helburuetan sakondu nahi du (*UNWTO, 2022*).

Hauetaz gain, Munduko Turismo erakundeak beste hainbeste ekintza eta ekimen garatu ditu eta garatzen ari da aspektu ekonomiko, sozio-kultural eta ingurumenekoak biltzen dituztenak, Turismo Jasangarri baten alde apustu egiteko asmoz. Esate baterako, dibertsitate biologikoa hobetzeko, turismoan erabiltzen diren baliabideen erabilpen efizientea bermatzeko, bidaien erraztasuna lortzeko eta sektorean beste hainbat hobekuntza garatzeko programak abian ere jarri ditu.

3.3. Gipuzkoa ere jasangarritasunaren alde

Lehen ikusi dugun moduan, Donostiako hirian sektore turistikoak duen indarra oso handia da eta gero eta erakargarriagoa bihurtzen ari da turista nazional eta internazionalentzarako. 2016. urtean Gipuzkoak lehen aldiz 2 milioi gauigaro baina gehiago izan zituen, 2.179.877 gauigaro izan zirelarik. Honen harira, azken hamar urteetan Gipuzkoako hotelen gauigaroeak %36ko hazkundea pairatu dute. Hazkunde honek lana, aberastasuna eta aukera berriak suposatzen ditu baina turismo kontrolagabe batek eragin negatibo esanguratsuak ekar ditzake. Honen ondorioz Gipuzkoan ere jasangarritasunaren alde egiteko beharra dago eta Gipuzkoak, turismoa aberastasun orekatu eta jasangarri baten iturri gisa bihurtzeko erronka du, bai ekonomikoki, sozio-kulturalki eta bai ingurugiroari dagokionez. Gipuzkoako kultura eta turismo sailak lana eta aberastasuna sortuko duen eta aldi berean kultura eta ingurumenaren baliozkotasuna bermatuko duen Turismo Jasangarri baten eredu bat garatzeko helburua du, beste hainbat helburuetan zentratuz, hala nola, lurralde-oreka, oreka estazionala, helmugaren internalizazioa etab. (*San Sebastián Turismoa, 2020*).

Bestalde, Gipuzkoak ere Turismo Jasangarriago bat sortzeko bere markoa eraiki du. 2016. urtean, Gipuzkoako Turismo Mahaia sortu zuen turismoaren eredu jasangarri bat garatzeko eta hurrengo urtean, 2017an hain zuzen, Gipuzkoako Turismoaren Behatokia (OTG) sortu zuen bi helburu nagusiekin. Alde batetik, hazkunde jasangarri bat bermatuko duen planifikazio eta neurtze-tresnak izateko xedearekin sortu zen. Beste alde batetik, Gipuzkoako Turismo Jasangarriaren eredu baten indartze, planifikazio eta kontsolidazio azterketa bat egiteko helburuarekin sortu zen, udalerrietan izango duen eragina aztertzeaz gain.

Turismo Jasangarri bat eraikitzeko erakundeek emandako lehen pausoa 34 adierazle ekonomiko ezberdinen analisia burutzea izan da, Gipuzkoako hamar udalerrri hartuz analisirako. Udalerrri horien artean Donostia dago noski.

Beste alde batetik, Donostiako Turismo Bulegoko Helmuga Kudeaketaren Arduradunarekin izan genuen solasaldiaren bitartez, Donostia Turismo Jasangarrira heltzeko martxan dituen programa eta ekintzen berri jakin izan dut. Haren hitzetan, Donostia hainbat ekintz eta programa antolatzen eta garatzen ari da ekonomikoki, sozio-kulturalki eta ingurugiroari dagokionez helmuga turistiko jasangarri bat izan dadin. Turismo Jasangarriaren plan bat burutzeaz gain, aspalditik ekintza aislatuak buruten ari dira. Ekonomikoki, Donostia helmuga turistiko bezala sustatzen dute turistak etorri daitezen. Hala ere, aspalditik egiten den sustapen hau kontrolatua da, turismo-masifikazioak eman ez daitezen. Promozio hau burutzeko, nahi dituzten merkatu eta turista-perfil motak ezagutzen dituzte, hau da, merkatuaren segmentazioa burutua dute jada eta, horren arabera sustapen-kanpainia ezberdinak egiten dituzte. Langileak adierazitako moduan, gastronomian eta gure kulturen interesa duten turistak erakartzea bilatzen da batez ere. Horretarako, Donostiako Turismo Bulegoak Euskadiko gainerako probintziekin lan egiten du eta, guztiak batera, Eusko Jaularitzako *Basquetour* erakundearekin aritzen dira elkarlanean.

Ingurumenari dagokionez, Donostiako Turismo Bulegoa Udaletxeko Ingurumen Departamentuarekin eta Enpresa turistikoekin (hotelak esaterako) ari da elkarlanean, hainbat programa dituztelarik eskuartean. *ZeroPlastik* programa da elkarlan horren emaitzetako bat. Ekintza honen bitartez, Donostiako hainbat hotel eta apartamentu turistikoekin lanean aritzea bilatu da, haien zaborren kudeaketa apropos bat bideratzeko asmoz. Honen helburu nagusia turistei Euskal Herrian birziklapenarekin dagoen sentsibilizazioaren berri ematea da, haiek honera etortzean berdin jokatu dezaten. Hala ere eta Turismo Bulegoko langileak aitortu duen moduan, programa hau hasiera-fase batean dago oraindik eta garatzeko nahikoa falta zaio.

Honen harira, garatuago dagoen eta ingurumenaren zainketarekin zer ikusia duen beste programa bat *Donostia Xahuketarik Gabe* programa da, elikagaiak alferrik galtzeari uko egiteko udaletxeak aurrera eramandako ekintza izanik. Elikagaien xahuketa horniduraren etapa guztietan ematen da, hala nola, ekoizketa prozesuan, banaketa prozesuan, kontsumitzerako garaian, etb. (*Donostiako Udala, 2022*).

Europako Elkarreak adierazi duen moduan, European ekoizten den elikagai guztien %20a xahutzen da, elikadura kate osoan zehar honela banatzen delarik: % 11 ekoizketa prozesuan, % 19 prozesatzerakoan, % 5 salerosterakoan, % 12 zerbitzu sektorean eta %53 etxeetan. Xahuketa honen ondorioz, elikadura-katean parte hartzen duten eragile guztiengan eragin negatibo bat suposatzen du. Izan ere, elikagaien galera honek dirua galtzea eragiten die, batez ere azken kontsumitzaileengan eragina duelarik. Diru-galeraz aparte, ingurumenean inpaktu negatibo zuzen bat sortarazten du, prozesuan hainbat baliabide natural kontsumitu eta ingurugiroarentzako negatiboak diren isuriak sortarazten direlarik (*Donostiako Udala, 2022*).

Alde honetatik, Donostiak Agenda 2030eko 12. helburuarekin duen konpromezua erakutsi nahi du programa honen garapenaren bitartez. 12. helburuaren arabera, munduan pertsonako alferrik xahutzen den elikagaien kopurua %50 batean murriztu nahi da. Horrela, Eusko Jaularitzaren diru-laguntzen bitartez, Donostiako Udaleko Ingurumen Zuzendaritzak *Donostia Xahuketarik Gabe* programa abian jarri du. Era honetan, baldintza batzuk betetzen dituzten Donostiako establezimenduei bereizgarri bat ezartzen zaie, establezimendu horiek ingurugiroarekin duten konpromezua goraipatzeko asmoz. Establezimenduek bete beharreko baldintza horiek honako hauek dira:

- Ondo bereiztea hondakin frakzio guztiak, baita bio-hondakina ere.
- Janik alferrik ez galtzeko balio duen neurri bat, behintzat, hartzea. Hor ditugu, batez ere, bezeroak bukatzen ez duen jana etxera eramateko aukera eskaintzea eta sukaldean ahalik eta jan-hondar gutxien izateko lan prozedura batzuk izatea, konparazio baterako.
- Hartutako prebentzio neurriak erabiltzen erakustea langileei.

Baldintza hauek betez gero, establezimenduek *Donostia Xahuketarik Gabe* bereizgarria lortuko dute.

Azkenik, Donostiak tokiko ohituretan murgiltzeko, bertako jendea eta ohiturak errespetatzeko eta hiria zaintzeko turistek hainbat jarraibide ematen dizkie, turismo-esperientzia ahalik eta hobereana izan dadin. Jarraibide horien artean, Euskaraz agurtzeko, ingurumenarekin arduratsua izateko, garraio publikoan, oinez edo bizikletaz mugitzeko eta beste hainbat jarraibide ematen zaizkie etortzen diren turistek. Honen helburua, etortzen diren turistak jasangarritasunaren lekuko izatea da (*San Sebastián Turismoa, 2022*).

4.JASANGARRITASUNA ETA PERTZEPZIOA: Egoiliarren turismoarekiko pertzepzioa azaltzen duten teoriak.

Ingurumenean kaltea eragiten duten adierazleen, adierazle ekonomikoen eta adierazle sozio-kulturalen eragina neurtu eta aztertu ondoren, Turismo Jasangarri baten alde apustu egiteko ezinbestekoa da aktibitate turistikoak bertako biztanleen egunerokotasunean duen inpaktua edo eragina ezagutzea, aspektu sozio-kulturalaren barnean kokatuz. Beste era batera esanda, garrantzitsua da egoiliarrek turismoarekiko duten pertzepzioa baloratu eta aztertzea. Sektoreak eragiten dituen inpaktu negatibo horien ondorioz, turismoaren garapen jasangarriak gero eta indar gehiago du, egoiliarren parte-hartzea beharrezkoa izanik haren garapenerako (*Hateftabar eta Chapuis, 2020*). Komunitatearen laguntza aktiboa ezinbestekoa da industriaren garapen jasangarrirako. Bertakoen beharrak asetzen diren heinean, sektorearekiko eta turistekiko izango duten ongi-etorria hobea izango da (*Nunkoo, 2016*). Beraz, aspektu psikologikoak ere paper garrantzitsu bat jokatzen du jasangarritasunari dagokionez.

Izan ere, turismoaren garapen jasangarri baterako ezinbesteko faktore gisa da egoiliarren ebeigi ona (*Rasoolimanesh, Jaafar, Kock, eta Ramayah, 2015*). Egoiliarren jarrera hotz batek orokorrean turistek bestelako helmuga bat aukeratzean eragina izaten du. Gainera, bertakoek turismoarekiko duten satisfakzio maila faktore esanguratsua da edozein aukera-prozesuetarako, edozein garapen arrakastatsu baterako beharrezkoa baita bertako komunitatearen laguntza aktiboa. Beraz, esan dezakegu turismoaren garapen jasangarria ezinezkoa dela bertako komunitatearen laguntza gabe (*Rasoolimanesh, Jaafar, Kock, eta Ramayah, 2015; Hateftabar eta Chapuis, 2020*).

Honen harira, egoiliarren jarrera aztertzen duten teoria ugari sortu dira eta gaur egun oraindik ere azterketa-iturri garrantzitsua izaten jarraitzen dute.

4.1.Hartu-eman Sozialaren Teoria

Burututako lehen azterketak jarrera ateorikoa zuten eta honen ondorioz, egoiliarren jarrerei buruz ikertzaileek zuten jakintza eta ulermena mugatua ikusten zen. Arrazoi nagusi hau dela medio hasi ziren egoiliarrek turismoarekiko duten pertzepzioa aztertzen duten lehen teoriak azaltzen. Nahiz eta teoria ugari sortu eta garatu diren, leku zehatz bateko biztanleek turismoarekiko duten pertzepzioa azalteko esanguratsuen Hartu-eman Sozialaren Teoria da (*Hateftabar eta Chapuis, 2020; Nunkoo, 2016*).

Ikertzaileek Hartu-eman Sozialaren Teoria elkarrekintza egoera batean banakakoen eta taldeen arteko baliabideen elkartruke moduan definitzen dute. Haien usteetan, egoiliarrek turismoarekiko duten pertzepzioaren alorrean ekarpen handienak egin dituen teoria izan da. Soziologia eta psikologia sozialaren alorrean izugarritzko garrantzia izan duen teoria da eta gizarte-jarrera ulertzeko teoria zaharrenetarikoa kontsideratzen da (*Hateftabar eta Chapuis, 2020; Nunkoo, 2016*).

Emerson-en (1981) usteetan, hartu-eman edo elkartruke sozialak gutxienez bi pertsona inplikatu behar ditu, horietako batek bestearengandik onurak jasotzen dituelarik, besteari onurak eragiten dizkion bitartean. Teoria honen arabera, hartu-eman soziala edo gizabanakoen jarrera aktibitate ezberdinen elkartruke bat da, ukigarriak edo ukiezinak izan daitezkeenak eta ordainsari eta kostuetan duelarik bere ardatza. Ordainsari eta kostuen egiturak harreman bateko elkartrukearen patroietan duen eragina aztertzen du, hartu-ema gizabanakoen jarreraren ardatza kontsideratuz. Elkartruke sozialean ematen diren emaitza horiek (ordainsari eta kostuak) ekonomikoak edo jarrera sozialdunak izan daitezke. Izan ere, Hartu-eman Sozialaren Teoriak dioenez, elkartruke sozialak emaitza ekonomiko edo sozialak inplikatzen ditu. Hala ere, aditu askok teoria hau kritikatu dute elkartrukean parte hartzen duten aspektu ekonomikoak gehiegi azpimarratzen dituelako (*Nunkoo, 2016; Hateftabar eta Chapuis, 2020; Rasoolimanesh, Jaafar, Kock, eta Ramayah, 2015*).

Elkartruke-prozesu bateko parte-hartzaileek elkarrekiko dependentzia dute baloratzen dituzten emaitzak lortzeko. Positiboki baloratzen dituzten emaitzak areagotzen saiatzen dira eta negatiboki baloratutakoak txikitzen. Horrela, elkartrukean jasotako onurak pairatutako kostuak baina handiagoak direnean, elkartrukea denboran zehar luzatzen saiatzen dira, sakon inbolukratuz (*Nunkoo, 2016*). Hartu-eman Sozialaren Teoriaren arabera, interakzio-prozesu batean parte hartzeko indibiduoek hartutako erabaki guztiak onura eta kostuen analisi subjektibo batean oinarritzen dira eta jasoko dituzten onurak pairatuko dituzten kostuak baino handiagoak direla ulertzen dutenean prozesuan parte hartuko dute.

Teoria hau turismoari lotuz, elkartruke soziala turisten eta egoiliarren artean emango da. Egoiliarrek turistengandik jasoko dituzten onurak, pairatuko dituzten kostuak baino handiagoak izango direla sumatu behar dute, eta alderantziz. Modu honetan, elkartrukea denboran zehar luzatuko da eta ondorioz, garapen turistikoaren alde ezartzeko joera izango dute. Lehen aipatu bezala, onura eta kostuak ekonomikoak nahiz sozialak izan daitezke.

Egoiliarren eta turisten arteko harremana elkartruke onuragarriak izateko aukera paregabea izan daiteke baina, bestalde, komunitate anfitrioiaren aldetik turistekiko explotazioa areagotzeko inpultsuak ere handitu ditzake (*Nunkoo, 2016*). Autore honek egindako baieztapen hau sostengatzeko, beste autore batzuek egindako azterketek, elkartruke prozesuetan parte hartzen duten elementu ekonomiko, sozial eta ingurumenekoek egoiliarrek turismoarekiko duten pertzepzioan eragin zuzena dutela adierazi dute (*Hateftabar eta Chapuis, 2020; Nunkoo, 2016*). Azterketa horien ondorioek, turismoaren kontextuan, elkartruke prozesu batean elementu ekonomikoez gain, ingurumenekoek eta sozialek ere garrantzi handia dutela iradokitzen dute.

Teoriaren ardatz nagusiak boterearen eta konfiantzaren kontzeptuak dira. Boterearen kontzeptuarekin hasiaz, elkartruke sozial bateko egoeretan indibiduo batek bestearen jarreraren gain eragiteko duen gaitasun bezala definitzen da (*Nunkoo, 2016*). Wrong-ek (1979) dioenez, boterea kontzeptualizatzeko ikuspegi bat, indibiduo batek bestearengain eragina izatea ahalbidetzen dioten errekurtsuak zenbakitzea da. Elkartrukeko egoera batean, boterea indibiduo batek besteak baloratu eta behar dituen errekurtsuen gain duen kontrol mailagatik dago mugatua. Errekurtsu bezala edozer gauza ulertu dezakegu, esate baterako, dirua, konpententzia, jakintza, gaitasunak, etab (*Nunkoo, 2016*).

Honen harira eta egoiliarrek turistekiko duten pertzepzioaren kontextuan, boterearen kontzeptua, bertakoek turismoaren garapena bultzatzeko beharrezkoak diren baliabideak kontrolatzeko duten gaitasun bezala ulertu daiteke (kapitala, eskulana, kultura, baliabide naturalak...), turismoak ekarriko dizkieten onura pertsonalak ziurtatzearekin batera. Baliabide hauek, egoiliarrek turismoaren aktore ezberdinekin elkartruke prozesu batean sartzeko duten gaitasuna mugatzen dute eta, honek, aldi berean, komunitateak turismoarekiko izango duen pertzepzioan eragina izango du (*Nunkoo, 2016; Hateftabar eta Chapuis, 2020; Rasoolimanesh, Jaafar, Kock, eta Ramayah, 2015*).

Boterearen kontzeptuak egoiliarren eta turistaren arteko elkartruke-prozesu batean duen papera erraz ulertzen da Elkartrukearen Ondorioen Matrizea erabilia. Orokorrean azalduta, zenbat eta botere gehiago hauteman elkartrukean parte hartzen duten indibiduoek (egoiliar edo turista), orduan eta errazago bultzatuko dute turismoaren garapena (*Nunkoo, 2016*).

Konfiantzaren kontzeptuari dagokionez, ikertzaile askok konfiantzaren kontzeptuak elkartruke sozialetan jokatzeko duen papera eta honen garrantzia azpimarratzen dute. Konfiantza, beraz, elkartrukeko prozesu batean, bazkide batek modu egokian jardungo duenaren itxaropen moduan definitu daiteke, zihurgabetasun eta arrisku egoera batean bazkidearen intenzio positiboetan oinarrituz. Bazkide baten fiabilitatea, elkartrukeak onurak edo irabaziak itzultzeko inongo beharrik ez dagoenean sortzen direnean frogatu daiteke. Konfiantzaren bitartez kooperazioa suspertzen da, harremana mantentzen duen borondate ona sortarazten du eta satisfakzio eta konprometzua handitzen du elkartrukearekin (*Nunkoo, 2016*).

Horrela, egoiliarren eta turistaren arteko elkartruke batean, egoiliarren bazkideetako bat gobernuak izango litzateke, turismoaren politika eta antolakuntzetan botere handia eragiten baitu. Gobernuak arrazoi politikoak, ekonomikoak eta ingurumenekoak direla eta esku-hartzen du turismoan eta ministerio eta departamentuen bidez kontrolatzen du (*Nunkoo, 2016*). Beraz, egoiliarrek erakunde gobernatzailearen bidez konfiantza bezala kontzeptualizatzen da.

4.2. Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoria

Egoiliarrek turismoaren garapenean duten jarreraren eragina duten faktoreak aztertzen duen beste teoria garrantzitsua bat Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoria da. Pertsona batek leku batekiko duen lotura emozional gisa ulertzen da lekuarekiko atxikimendua eta psikologia ambientalaren kontzeptu nagusietako bat da. Pertsona batek leku edo kokapen zehatz batekin duen edozein harreman positibo edo negatibo bezala definitzen da orokorrean. Hala ere, modu askotan aztertu eta garatu den kontzeptu bat da (*Hateftabar eta Chapuis, 2020; Eusébio, Vieira eta Lima, 2018*).

Psikologia ambientalak, esate baterako, indibiduoek lekuarekiko duten atxikimenduan zentratu da batez ere. Beste hainbat ikerketen arabera, lekuarekiko atxikimenduak beste hainbat alderdi ditu, hala nola, familia, lagunak, bertako kultura, etab. Modu honetan, lekuarekiko atxikimenduaren kontzeptuak maitasun, sinismen, emozio, jakintza eta jarrerak barne-hartzen ditu (*Dyer eta beste batzuk, 2007; Ramkissoon, Weiler eta Smith, 2013*).

Egoiliarrek garapen turistikoarekiko duten jarrera neurtzeko Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoria erabili denean, lekuarekiko atxikimenduaren kontzeptua bi dimentsio ezberdinetan neurtu ohi izan da: lekuaren identitatea, leku batetik atxikimendu afektibo gisa ulertzen dena, eta lekuarekiko dependentzia. Beste ikerketa batzuetan lekuarekiko atxikimendua ulertzeko indibiduoek lekuarekiko duten lotura sozialaren kontzeptua ere erabili izan da (*Dyer eta beste batzuk, 2007; Ramkissoon, Weiler eta Smith, 2013*).

Hala eta guztiz ere, Trentelman-en (2009) arabera, teoria honek pertsonen haien komunitatearekiko duten atxikimenduaren aspektu sozialak soilik baneratzen ditu. Osagai fisikoez osatuta egoteaz gain, jakintza, konpromezua eta pertsona batek leku zehatz batekiko duen satisfakzio-mailak ere osatzen dute lekuarekiko atxikimenduaren kontzeptua (*Hateftabar eta Chapuis, 2020; Eusébio, Vieira eta Lima, 2018*).

Teoria hau egoiliarrek turismoarekiko duten pertzepzioaren kontextuan ezartzen badugu, lekuarekiko atxikimendu oso altua duten egoiliarrek garapen turistikoa positiboki baloratzeko joera izango dutela ulertzen da, eta alderantziz. Beste era batera esanda, lekuarekiko kidetasun handia sentitzen duten biztanleek jarrera positiboago batez antzemango dituzte turismoaren inpaktuak eta, ondorioz, haien gogoia turismoaren garapena bultzatzeko handiagoa izango da (*Eusébio, Vieira eta Lima, 2018*).

5.ANALISI ENPIRIKOA: Donostiarrek turismoarekiko duten pertzepzioaren azterketa.

5.1. Metodologia

Behin turismoaren kontzeptua, haren kontextu historikoa eta sektorearen ezaugarri nagusiak azaldu ondoren, herritarren pertzepzioan eragina duten faktoreak aztertzen dituzten teoria nagusiak azaltzearekin batera, lan honen arlo enpirikoari ekingo zaio.

Analisi hau burutu ahal izateko, bi motatako informazio iturriak erabili dira. Alde batetik, Donostiako 160 herritarrei egin zitzaien inkesta batetik lortutako informazioa erabili da analisi kuantitatiboa burutzeko asmoarekin. Adin, sexu, ikasketa-maila, errenta-maila, familiako kide kopuru, espektru politiko, jabetza-sentimendu eta Donostiako auzo ezberdinetako pertsonen egin zitzaien galdetegiak. Bertan, herritarrek turismoarekiko duten jarrera aztertzeko helburuarekin burututako galderak azaltzen dira, biztanleen jarreraren eragina izan dezaketen arlo ezberdinak ukitzen direlarik. 67 galderaz osatutako inkesta honetan, Likert eskala erabili zen erantzunak lortzeko. Horrela, herritarrek 1etik 5era erantzun behar izan zuten galdera bakoitzarekin duten adostasun-mailaren arabera, 1 zenbakia *Guztiz Desados* eta 5 zenbakia *Guztiz Ados* izanda. Aipatu beharra dago zenbait galderetan zenbait ikestatuek ez zutela erantzunik eman. Ondorioz, galdera horiek aztertzerako garaian, hutsik dauden herritarren erantzunak ez dira kontuan hartuko eta beraz, lagina 160 baino txikiagoa izango da, hutsik dauden erantzun kopuruaren arabera, noski.

Bestalde, elkarrizketen bidez lortutako informazioa ere baliagarria izan da Donostiako herritarren pertzepzioa aztertu ahal izateko, batez ere, informazio osagarri moduan erabilia izan delarik. Hasteko, Donostiako Turismo Departamentuko Helmuga Kudeaketaren Arduradunarekin burutu zen elkarrizketa, donostiarren pertzepzioari, Turismo Jasangarriari eta erantzun sozialari buruzko informazioa lortzeko helburuarekin. Ondoren, Bizilagun Ekin eta Ernai izeneko elkarteekin burutu ziren solasaldiak helburu berberarekin, baina beste ikuspuntu mota bat ezagutzeko xedea zegoelarik. Hiru elkarrizketa hauek fakultateko beste ikasle batekin, Ivan Alberdi Martínezekin hain zuzen, burutuak izan dira.

Elkarrizketa hauek sortu eta garatzearen helburu nagusia, genuen inkestaren informazio osagarria lortzea zen. Izan ere, modu honetan analisi enpiriko osatuago eta sakonago bat garatzeko aukera izan dugu eta, horretaz gain, herritarren pertzepziolari buruzko ikuspuntu ezberdinak aztertzeko aukera izan dugu, inkestako datuekin alderatzeko aukera izateaz gain.

Analisi enpiriko hau burutu ahal izateko, Turismo Jasangarriaren hiru ardatzak eta egoiliarren pertzepzioa azaltzen duten teoria nagusiak izango dituz ardatz, Hartu-eman Sozialaren Teoria eta Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoria, alegia. Hartu-eman Sozialaren Teoriak dioen bezala, biztanleek sektore turistikotik antzematen dituzten onura ekonomiko edo sozialak, perzibitzen dituzten kostu ekonomiko edo sozialak baino handiagoak direnean, turismoaren inpaktuak positiboagoki jasotzeko joera izango dute eta turismoaren garapena bultzatzeko joera izango dute. Bestalde, Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoriari erreparatzen badiogu, leku zehatz batekiko sentimendu edo atxikipen handiagoa duten egoiliarrek turismoaren garapena bultzateko joera izango dute. Azterketa honen helburua, beraz, Donostiaren kasua aztertzeko izango da bi teoria hauen eskutik.

Ingurumenaren inpaktuek egoiliarren jarreraren eragina azaltzen duen teoria garbi eta sendorik ez dagoenez, ingurugiroko faktoreek donostiarren pertzepzioan nola eragiten duten aztertzeko inkestako hainbat galderaz baliatuko naiz.


Modu honetan, Turismo Jasangarriaren hiru ardatz nagusiak aztertutako izango dira. Ardatz ekonomikoa eta soziala bi teoriaren bitartez, inkestako galderekin konbinatuz landuak izango diren bitartean, ingurugiroaren ardatza soilik inkesta erabiliaz burutuko da.

5.2.Hartu-eman Sozialaren Teoria: Aspektu ekonomiko eta sozialen azterketa.

Aspektu ekonomiko eta sozialek donostiarren pertzepzioan nola eragiten duten ikusteko, lehendabizi turismoarekiko biztanleek duten iritzi orokorra ikusi behar da. Horretarako, ikestatuei burutu zitzaizen lehen galderan sakonduko da, hau da, *“turismoa zerbait positiboa da hiriarentzat”* galderaren emaitzak aztertuko dira.

Grafikoa 1.

Turismoa zerbait positiboa da hiriarentzat.



Iturria: Autoreak eginako inkestatik lortutako datuen bitartez.

Lehenengo grafiko honetan ikusten den moduan, planteaturiko galdera honen emaitzen norabidea nahiko argi dago. Inkestatuen gehiengoaren ustez fenomeno turistikoak positiboki eragiten du Donostiako hirian, hau da, hiritarren ustez ekarpen positibo gehiago egiten ditu hiriarentzat negatiboak baino. Horrela, turismoak eragiten dizkien onurak, sektoreak pairatuarazten dizkien kostuak baina handiagoak dira.

Izan ere, ikusi daitekeen moduan, inkestatuen %76a *Guztiz Ados* edo *Ados* dago planteatutako galderarekin, 1etik 5erako eskala batean 4 eta 5-eko puntuazioa eman dutelarik. Ordea, galdetu zaien hiritarren %10 baten ustez turismoa ez da positiboa hiriarentzat. Kasu honetan, hiritar hauen ustez turismoaren eragin negatiboek, positiboek baina pisu handiagoa dute.

Beraz, orokorrean Donostiako hiritarrek turismoa positibotzat antzematen duten fenomeno da. Honen atzean, turismoak dituen ekarpen positibo ugariak eta hiritarrek apreziatzen dituztenak daude, hala nola, lanpostuen sormena, azpiegituren hobekuntza, hiriaren bizi-kalitate orokorraren hazkundea, sentsibilizazioa, bertako kulturaren mantentze eta zabalkuntza, etab.

Hartu-eman Sozialaren Teoriarekin lotu dezakegu interpretazio hau. Teoriak dioen bezala, egoiliarrek sektore turistikotik jasotako onurak antzematen dituzten kostuan baina handiagoak diren heinean, orduan eta errazago bultzatuko dute turismoaren garapena eta haren alde ezarriko dira. Beraz, lehenengo grafikoko datuak ikusiz eta Hartu-eman Sozialaren Teoriak dioena kontuan hartuz, hiritarren gehiengoaren ustez turismoa positiboa izateak honako interpretazio hau du: turismoak ekarpen positibo gehiago egiten ditu hiriarentzat negatiboak baino. Horrela, Donostiako hiritarrek orokorrean sektore turistikoaren garapena sustatzen dutela ondorioztatu daiteke, donostiarrei sektoreak eragiten dizkien onura eta kostu ekonomiko nahiz sozialen arteko erlazioa bilatuz.

5.2.1. Onura ekonomiko eta sozialen azterketa.


Esan bezala, planteaturiko galdea honen emaitzen atzean sektore turistikoak egoiliarrei eragiten dizkien ekarpen edo onura positiboak daude. Baina, zeintzuk dira orokorrean onura horiek? Ikus dezagun beraz inkestako beste galdera batzuen bitartez zeintzuk izan daitezkeen donostiarrei turismoak ekartzen dizkien onura horiek. Horretarako, aspektu ekonomiko eta sozialak biltzen dituzten hainbat galdera aukeratuak izan dira. Izan ere, Hartu-eman Sozialaren Teoriaren arabera, onura horiek aspektu ekonomiko edo sozialdunak izan daitezke. Hurrengo galderak izan dira aukeratuak:

- ❖ Turismoak Donostiako ekonomia hobetzen du (V2).
- ❖ Turismoak kalitatezko lanpostuen sorrera dakar hirian (V4).
- ❖ Turismoari esker aktibitate sozial eta kultural gehiago daude Donostian (V5).
- ❖ Turismoak kulturen arteko kontaktua sortzeko aukera ematen du (V6).
- ❖ Turismoak biztanleriaren bizi-kalitatearen hobekuntzan laguntzen du (V10).
- ❖ Turismoak gure identitate kulturala gehiago baloratzen laguntzen digu (V11).
- ❖ Turismoak hiriko azpiegituren hobekuntza dakar (V12).
- ❖ Donostiara turistak etortzea gogoko dut (V48).

Inkestatik aukeratuak izan diren galdera hauek turismoak ekar ditzakeen onuren artean egon daitezkeela pentsa dezakegu, inongo analisirik egin gabe. Ikus dezagun beraz ea donostiarren iritziz sektoreak ekartzen dituen onurak ala kostuak diren.

Grafikoa 2.

Turismoaren onurak izan daitezkeen biztanleen pertzepzioa.



Iturria: Autoreak egina inkestatik lortutako datuen bitartez.

Bigarren grafiko honetan ikusten den moduan, aukeratuak izan diren galdera hauek donostiarrengatik orokorrean sektore turistikoak hiriarri ekarrarazten dizkion onurak kontsideratzen dira. Inkestatoren garapenerako Likert eskala erabili denez 1etik 5erako puntuazioan, 2,5eko balorazioa baino gehiago duten galderak onurak kontsideratuak izango dira. Bestalde, 2,5 azpitik kokatzen direnak, biztanleen pertzepzioaren arabera kostutzat hartuak izango dira.

Taula 4.

Turismoaren onuren analisia.

TURISMOAREN ONUREN ANALISIA						
	Guztiz Desados	Desados	Ez Ados ez Desados	Ados	Guztiz Ados	Guztira
V2	3,13%	6,88%	8,75%	27,50%	53,75%	100%
V4	10,63%	11,88%	23,13%	36,25%	18,13%	100%
V5	5,66%	8,81%	24,53%	37,11%	23,90%	100%

V6	2,52%	6,92%	16,35%	38,99%	35,22%	100%
V10	11,39%	8,86%	24,68%	33,54%	21,52%	100%
V11	10,00%	8,13%	25,63%	31,88%	24,38%	100%
V12	7,55%	5,66%	23,90%	37,74%	25,16%	100%
V48	2,50%	3,75%	22,50%	35,00%	36,25%	100%

Iturria: Autoreak egina inkestatik lortutako datuen bitartez.

Donostiarren ustez turismoak ekonomia hobetzen duela (V2) nahiko argi ikusi dezakegu bigarren grafikoari eta laugarren taulari erreparatuz. Izan ere, galdera honen batzbesteko orokorra 4 balioaren gainetik kokatzen da, donostiarren gehiengoa *Ados* edo *Gutziz Ados* egon dela planteaturiko galdera honekin ondorioztatu daitekeelarik. Diru-sarrera handiak suposatzen dituen sektore ekonomikoa da turismoa Donostiarentzat, lanpostu ugariaren sormena eta azpiegituren hobekuntza ekartzen baitu. Donostiarren iritziz, sektoreak hiriarri egiten dion ekarpen onuratsuena da, puntuazio altuena duen galdera izanik, 4,21 balioarekin 5era bitarteko eskalan. Taulan ikustenenez, inkestatuen %81,25 baten ustez turismoak ekonomikoki hobetzen du hiria. Soilik %10,01en iritziz turismoak ez du hobekuntza ekonomikorik ekartzen Donostiarentzako. Beraz, adostasun-maila handia duen galdera da.

Turismoak ekartzen duen ekonomiaren hobekuntza honek harreman zuzena du bigarren galderarekin (V4). Lanpostuen kalitatearen inguruan dauden iritzien norabidea nahiko argi dagoela esan daiteke, erantzunen %54,38a baiezkoren aldekoa izan baita, nahiz eta inkestatuen %22,51 baten ustez turismoak sortarazten dituen lanpostuak kalitate eskasekoak izan. Gainontzeko inkestatuek erdibide batean kokatzea erabaki dute, hau da, ez *ados* ez *desadosen* alde, galdera honen planteamenduak zalantza sortzen dietelarik. Nahiz eta sektoreak eratzen dituen lanpostuak kalitate baxukoak izateagatik ezagunak diren, Donostiako langileek Espainiako hitzarmen hobereana dute arlo honetan, eta gerta daiteke hiritarrek hau antzeman izana, Donostiako Turismo Bulegoko Helmuga Kudeaketaren Arduradunak elkarrizketa bidez adierazi zuen moduan. Bestalde, askotan sortzen diren kontratuak epe mugatu baterako izaten dira (udan lan egiteko soilik adibidez), soldata ez oso altu baten truke eta lanordu ugariarekin. Gerta daiteke zenbait herritarrek hau antzematea. Ondorioz, turismoak eragindako onura honek 3,39ko puntuazioa jaso du.

Turismoak ekartzen dituen onura ekonomikoekin jarraituz, grafikoan eta taulan ikusten den moduan, inkestatuen %62,9 baten ustez turismoari esker Donostiako azpiegiturak hobetzen dira. Turismoak hirian azken urteetan izan duen hazkundearen ondorioz, Donostia inbertsio ugari burutzen ari da azpiegituretan. Modu honetan, turistak asebetetzea lortzen da eta, honek aldi berean, turista gehiagoren etorrera suposatzen du. Ondorioz, hiriak diru-sarrera handiagoak izango ditu eta inbertsio gehiago burutzeko izango duen kapitala handiagoa izango da.

Onura sozialak aztertzen hasiaz, turismoak aktibitate sozio-kultural gehiagoren ekarpena dakar, inkestatuen %61,01 baten iritziz. Izan ere, Donostiako Udalak turista gehiagoren etorrera sustatzeko eta haiek erakartzeko, pizgarri sozial eta kulturalak sortu behar ditu, horretarako hainbat ebentzu eta ekitaldi prestatzen dituelarik. Estropadak, Jazzaldia eta Donostiako Zinema Jaialdia mundu osoko turistak erakartzen dituzten ekitaldiak dira, batez ere turistak erakartzeko bideratuak izan direlarik. Modu honetan, neurri handi batean turismoa erakartzeko sortuak izan diren ekitaldietaz ere bertako jendeak gozaten du, onura soziala suposatuz. Estropadak dira honen adibide garbi bat. Donostiako Helmuga Kudeaketaren Arduradunak izan genuen solasaldian azaldutako moduan, Estropadak turistak erakartzeko helburua zuten. Donostiak uda osoan zehar turistak izaten zituen baina iraia heltzean, hutsik geratzen zen. Estazionalitate horrekin amaitzeko helburuarekin, irailean ekitaldi bat sortzea erabaki zen, turismoa erakartzeko eta udan zeuden turistak mantendu ahal izateko. Gaur egun, Donostiako Euskal Kulturaren parte direla esan dezakegu, bertako jendea izanik gehien gozaten dituztenak.

Bestalde, ia 4ko batzbesteko orokor batekin, turismoaren bitartez kulturen arteko kontaktua areagotu egiten da. Hori da inkestatuen %74,21 baten pertzepzioa. Kontinente eta herrialde ezberdinetako etorrera dela eta, Donostian kultura ugari nahasi eta elkartzen dira. Nahiz eta honek askotan gaizkiulertuak ekarri, orokorrean beste kulturetatik elikatu eta ikasteko aukera ematen du, kultura bakoitzak dituen tradizio eta sinismenak partekatzeko aukera paregabea izanik. Horrela, euskaldunoi gure identitate kulturala gehiago baloratzen laguntzen digu turismoak. Inkestatuen %56,26 baten iritziz, turisten etorrerek dugun kultura berezia baloratzen eta apreziatzen laguntzen digu. Izan ere, hizkuntza, tradizio eta kultura berezi eta bakarra dugu eta turismoak hau baloratzen laguntzen badigu, onura sozialtzat hartu daiteke.

Aipaturiko onura ekonomiko eta sozial guzti hauen ondorioz, donostiarren bizi-kalitatea hobetzen du turismoak, horrela uste baitu inkestatuen %55,06ak, taulan ikus daitekeen bezala.


Turismoak donostiarrei eragiten dizkien onura ekonomiko eta sozial guzti hauen ondorioz, donostiarrek orokorrean mugimendu turistikoa positibotzat jotzen dute. Hau, V48 galderaren emaitzak aztertuz baieztatu dezakegu, non inkestatuen %71,25 batek gogoko du turisten etorrera Donostiako Hirira. Lehen esan bezala, honen arrazoia Hartu-eman Sozialaren Teorian aurkitu dezakegu; hiritarren gehiegiak turismotik onura gehiago antzematen ditu eragiten dizkien kostuak baino. Ondorioz, turisten etorreren eta turismoaren garapenaren alde posizionatzea erabakitzen dute.

Beraz, Donostiako hiritarrek turismotik antzematen dituzten onura nagusiak atal honetan azaldutakoak direla ondorioztatu daiteke. Hala ere eta nahiz eta orokorrean hiritarrentzat turismoa positiboa izan, lehenengo grafikoan ikusi den moduan, hiritarren %10 baten ustez turismoa ez da positiboa Donostiako hiriarentzat. Hartu-eman Sozialaren Teoriaren bitartez, hurrengoa interpretatu daiteke: hiritarren %10 honek turismoarengandik jasotzen dituen onuren pisua, pairatzen dituen kostuen pisua baino txikiagoa da. Ondorioz, turismoa negatibotzat hartuko dute.

%10 honen pertzepzioa aztertzeko, lehendabizi hiritarrek orokorrean turismoaren onuratzat jotzen dituzten galderen analisia egin behar da, %10 honek onura horiengan duen iritzia ikusteko. Horretarako, *“turismoa zerbait positiboa da hiriarentzat”* galderarekin *Guztiz Desados* eta *Desados* (1 eta 2 balorazioa) egon direnek, analisisian hautemandako onuren inguruan (V2, V4, V5, V6, V10, V11, V12, V48) duten iritzia azertu behar da, onura edo kostutzat dituzten ikusteko.

Grafikoa 3.

Turismoa positibotzat hartzen ez duten hiritarrek (inkestatuen %10a) onura orokorren inguruan duen pertzepzioaren analisia.



Iturria: Autoreak egina inkestatik lortutako datuen bitartez.

Hirugarren grafikoan ikusten den bezala, inkestatuen %10 honek onura orokorren inguruan duen iritzia negatiboagoa da. Puntuazioen balioa dezente jaitsi da, haietako batzuk onurak kontsideratuak izan beharrean, kostuak kotsideratuak izatera iritsi baitira.

Biztanleriaren sektore mugatu honen ustez, turismoa kulturen arteko kontakturako aukera paregabea dela pentsatzen dute, hau da, Donostiako hiritarren iritzi orokorraren pentsamendu berbera dute, onura kontsideratuaz. Hala ere, 2,56ko batazbesteko orokorrarekin, onura-kostu mugan kokatzen da, 2,5 puntuaziotik oso gertu. Beraz, biztanleriaren %10 honek, turismoak kulturen arteko kontakturako aukera izateak onura kontsideratzen du, baina kontuz ibili beharko litzateke, onura kontsideratua izatetik kostu kontsideratua izatera oso gertu dagoelako.

Egoera berdina ematen da turisten etorrerarekin. Oraingoan, muga baina zertxobait gorago kokatzen da %10aren batazbesteko orokorra, 2,93koa delarik. Beraz, sektore honen ustez ere orokorrean turisten etorrera positiboa da Donostiarentzat.

Aktibitate sozio-kulturalen sormenari dagokionez, onuratzat kontsideratzen du inkestaturen %10 honek. Baina aldi berean, kostutzat ere kontsideratua da. Izan ere, erdibide batean kokatzen da, 5etik 2,5eko balorazio orokorra duelarik. Aurreko atalean argi ikusi den moduan, donostiarrek orokorrean turismoak aktibitate sozio-kultural berrien ekarpena egiten duela pentsatzen dute baina, sektore mugatu honek aktibitate berrien sorrera hori turismoak bultzatzen dituelaren zalantzak dituzte.

Egindako analisi honetatik hurrengo ondorioztatu daiteke: turismoak aktibitate sozio-kulturalen sormena ekartzen duela, kulturen arteko kontakturako aukera dela eta turisten etorrera, sektore turistikoak donostiarrei orokorrean eragiten dizkien onura ekonomiko naiz sozial nagusiak dira, horrela antzematen baitute inkestatuak izan diren biztanleek, salbuespenik gabe.

Honetaz gain, badaude hainbat kontzeptu donostiarren iritzi orokorrean turismoak eragindako onurak direnak, baina %10 honen usteetan turismoak eragindako kostuak direnak. Inkestaturen %10 honek antzematen duenez, turismoak ez du hiria ekonomikoki hobetzen, biztanleen bizi-kalitatearen hobekuntza ekartzen ez duen bezala. Sektore honen ustez, turismoaren ondorioz biztanleriaren bizi-kalitateak atzera-pauso bat eman du, turismoak sortzen dituen arazo guztien ondorioz.

Kalitate eskaseko lanpostuak dira turismoak ekartzen duen arazo horietako bat. Hirugarren grafikoan behatu daitekeen moduan, %10 honek turismoak sortzen dituen lanpostuen baldintzak ezegokiak eta kalitate baxukoak direla antzematen du. Izan ere, langileek denbora mugatu baterako kontratua lortzeko aukera soilik dute askotan, turista asko dauden epe eta hilabeteetarako lortzen dituzten kontratuak, hain zuzen. Gainera, soldata baxuak jasotzen dituzte trukean eta, askotan, soldata horiek ez dijoaz bat lan egindako ordu kopuruarekin.

Gainera, sektore honen ustez turismoak ez digu identitate kulturala baloratzen laguntzen. Gerta daiteke Donostiako zenbait leku eta sektoreetan dagoen eskaintza turismoaren araberakoa izatea eta hemengo tradizio eta ohiturak alde batera uztea, turistak asebetetzeko helburuarekin. Honek, kulturaren identitatearen galera bat suposatzen du. Esate baterako, honen adibide garbi bat tabernetan “pintxoak” eskaintzeari utzi eta “a la carta” eskaintzea izango litzateke. Donostiako Helmuga Kudeaketaren Arduradunak esan bezala, badaude Donostian zenbait taberna hau egin dutenak, turista gehiago erakartzeko asmoz. Azkenik, turismoak azpiegituren hobekuntza bat suposatzen ez duela antzematen dute, batzbestekoa 2,5 balioaren azpitik kokatzen delarik.


Ondorioz eta laburbilduz, turismoak ekartzen dituen onura nagusien artean, aktibitate kulturalen sormena, kulturen arteko kontakturako aukera eta turistaren etorrera dira. Bestalde, badaude donostiarrek orokorrean onuratzat kontsideratzen dituztenak baina sektore mugatu baten ustez (%10) turismoak sortarazitako kostuak direnak, esate baterako, kalitatezko lanpostuen sormena edo azpiegituren hobekuntza, beste hainbaten artean. Hartu-eman Sozialaren Teoriaren arabera, turismotik antzematen dituzten kostuen pisua antzemandako onurena baina handiagoa bada, biztanle hauek mugimendu turistikoa negatibotzat hartuko dute, lehenengo grafikoan ikusi den bezala.

5.2.2.Kostu ekonomiko eta sozialen azterketa.

Sektore turistikoak onurak ekartzeaz gain, hiritarrei kostu ekonomiko nahiz sozialak ere sortarazten dizkie. Laugarren, bosgarren, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren grafikoetan ikusi dezakegu zeintzuk diren donostiarren iritiz turismoak sortzen dituen arazo edo kostu nagusiak.

Grafikoa 4.


Turismoaren kostuak izan daitezkeen biztanleen pertzepzioa.



Iturria: Autoreak egina inkestatik lortutako datuen bitartez.

Grafikoa 5.

Taberna eta jatetxeetako prezioen igoeren biztanleen pertzepzioa.




Iturria: Autoreak egina inkestatik lortutako datuen bitartez.

Laugarren eta bosgarren grafikoetan ikus daitekeen bezala, taberna eta jatetxeetako prezioen igoera turismoak eragindako kostu gisa ulertzen dute Donostiako biztanleek orokorrean. Izan ere, inkestatuen %72,24 batentzat turismoak prezioen igoeran du eragin zuzena eta %14,46 batentzat prezioen igoera ez da turismoaren ondorio zuzena.

Turisten etorrera kopuruaren hazkundearen ondorioz, taberna eta jatetxeetako prezioek gora egin dute. Donostiara iristen diren turistek poltsikoak diruz beteak dituzte eta prest daude edozer gauza ordaintzeko, hiriko ospe eta izen oneko jatetxeetan kontsumitzearen truke. Ondorioz, bertako jabeek, jakinda turistek edozein prezio ordainduko dutela, haien produktuen prezioak igotzen dituzte, bertakoak diren biztanleei kaltea sortuz. Horrela, turismoak eragindako kostutzat antzematen dute prezio hauen igoera.

Grafikoa 6.

Etxebizitzen prezioen igoeren biztanleen pertzepzioa.



Iturria: Autoreak egina inkestatik lortutako datuen bitartez.


Antzeko egoera ematen da etxebizitzen prezioen hazkundeari dagokionez, horrela uste baitute donostiarrek orokorrean, batzbestez 4,19ko puntuazioa izanik 1etik 5erako eskalan. Donostiarren %80,75 baten ustez sektore turistikoa etxebizitzen prezioaren hazkundera eragiten du, hiritarren pertzepzioaren arabera kostu nabarmena izanik.

Taberna eta jatetxeetako produktuen prezioarekin gertatzen den moduan, hirira etortzen diren turistak normalean ekonomia-maila altua dutenak izaten dira. Ondorioz, estantzia edo alojamendurako prezio altuak ordaintzeko prest daude. Turismo-etxebizitzen jabeak eta hotelak jakinaren gainean daudenez, alokailuaren eta alojamentuaren prezioak igotzen dituzte, etxebizitza orokor guztien prezioan eragin nabarmena duelarik. Gauzak horrela, Donostia osoan eta batez ere turista kopuru nabarmenak dauden auzoetan, Alde Zaharrean adibidez, ezinezkoa da etxebizitza bat eskuratzea prezio orekatu eta eskuragarri batean.

Hau da, zehazki, BiziLagun Ekin elkartearen kexa nagusia. Izan ere, etxebizitzaren prezioen inguruan dagoen gatazkaren parte-hartzaile nagusietakoak dira. Elkarrekin argudiatzen duen bezala, Donostiako etxebizitzaren prezioak ahalbidezinak dira eta ezin daiteke prezio horiekin etxebizitza bat hirian erosi. Horrela, inguruko herrietara mugitzeko beharrean ikusten da jendea. Ikusten den bezala, turismoarekiko biztanleek duten pertzepzioan eragin negatibo nabarmena duen gaia da.

Grafikoa 7.

Trafiko eta aparkamentu arazoengatik biztanleen pertzepzioa.




Iturria: Autoreak eginako inkestatik lortutako datuen bitartez.

Trafiko ugaria eta aparkamenturako lekua ez aurkitzea da donostiarren ustez turismoak sortzen duen beste kostu sozial bat. 4,19ko batazbestekoarekin, inkestatuen %79,38 batek turismoak sortarazten duen arazotzat jotzen dute. Soilik %11,26 batek uste du arazo hauek ez dutela turismoarekin zer ikusirik edo, sinpleki ez dituzte arazo edo traba sozial gisa kontsideratzen.

Turista asko konzentratzen diren lekuetan, hala nola, Alde Zaharra edo hondartzaren inguruak, turismo aktibitate handia dagoen epeetan ezinezkoa da aparkatzea, trafiko handia eta geldioneak sortzearekin batera. Bertako biztanleentzako, haien egunerokotasuna burutu ahal izateko traba nabarmena suposa dezake, pisu handiko kostu soziala bihurtuz.

Grafikoa 8.

Pertsonen aglomerazioen inguruan biztanleen pertzepzioa.



Iturria: Autoreak egina inkestatik lortutako datuen bitartez.

Donostiarren pertzepzioaren arabera, kaleak jendez beterik ikusteak eta honek sortzen dituen aglomerazioak dira turismoak sortarazten dituen kostu nagusiak, batazbesteko 4,23ko balorazio batekin, laugarren grafikoan ikusten den bezala. Inkestatuen %79,87 bat *Ados* edo *Guztiz Ados* egon da arazo honen planteamenduarekin, %7,55 bat soilik *Guztiz Desados* edo *Desados* egon den bitartean. Trafiko eta aparkamentu arazoekin gertatzen den era berean, turisten etorrera kopuru handia dagoen epeetan, hiria jendez betetzen da eta leku zehatz batzuetan konzentratzen da.

Horrela, askotan oso zaila izaten da betiko tabernako terrazan tokia aurkitzea edo askotan hondartzan lekua aurkitzeko arazoekin topatzen dira donostiarrak. Bertakoak izanik, horrelako egoera baten aurrean tristura, larritasuna edo amorrua sentitu dezake donostiarrak, pertsonen aglomerazio eta masifikazioa turismoak sortarazten dieten arazotzat hartuz.


Beraz, donostiarrak orokorrean turismoak honako kostu sozial naiz ekonomiko hauek sortarazten dizkietela antzematen dute: taberna eta jatetxeetako prezioen igoera, etxebizitzaren prezioen igoera, trafiko eta aparkamentu arazoak eta pertsonen aglomerazioak.

5.2.3. Hartu-eman Sozialaren Teoriaren frogapena Donostiaren kasurako.

Hartu-eman Sozialaren Teoriaren arabera, turismotik antzematen dituzten onurak pairatzen dituzten kostuak baina handiagoak direnean, hiritarrek orokorrean turismoa positibotzat hartuko dute eta, ondorioz, turismoaren garapena errazago sustatuko dute. Aurreko ataletan ikusitako moduan, Donostiako hiritarrek orokorrean onura gehiago antzematen dituzte, nahiz eta kostuak ere antzeman. Horrela, teoriak dioena jarraituz, turismoa positibotzat hartzen dutenek sektorearen garapena negatibotzat hartzen dutenek baino gehiago sustatu beharko lukete. Atal honetan, hori frogatzea izango da helburua, hau da, teoriak dioena Donostiako hirira aplikagarria den ala ez ikustea.

Grafikoa 9.

“Turismoaren garapena sustatzen dut” galderari emandako erantzunak.



Iturria: Autoreak eginako inkestatik lortutako datuen bitartez.

Hartu-eman Sozialaren Teoriaren frogapena burutu ahal izateko, turismoa hiriarentzako positiboa dela pentsatzen dutenek (V1), turismoaren garapena zenbateraino bultzatzen duten ikusiko da (V54). Bestalde, gauza berbera egingo da turismoa hiriarentzat negatiboa dela pentsatzen duten hiritarrekin.

Bederatzigarren grafikoan ikusten de bezala, turismoa positibotzat jotzen duten hiritarrek, turismoa negatibotzat jotzen dutenek baino gehiago sustatuko dute turismoaren garapena. Izan ere, batzbesteko balioak ikusita, donostiarren batzbesteko orokorra 3,45 balioan aurkitzen da, turismoa positibotzat hartzen dutenen balioa 3,76 eta negatibotzat hartzen dutenen balioa 2,38ko puntuazioan aurkitzen diren bitartean.

Ondorioz, Hartu-eman Sozialaren Teoria Donostiaren kasurako aplikagarria dela esan daiteke.

5.3.Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoria: Aspektu sozialen azterketa.

Turismoak eragindako inpaktuek egoiliarren jarreran nola eragiten duten aztertzen duen beste teoria bat Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoria da. Kasu honetan, pertsonak leku zehatz batekiko duten sentimendu bezala ulertu daiteke. Gainera, leku zehatz batekiko pertsonak duten lotura sozial gisa ere ulertzen da. Horrela, analisi hau burutzerako orduan aspektu sozialak soilik izango ditugu kontuan.

Analisi honen helburua Donostiarekiko atxikita dauden biztanleek, edo beste era batera esanda, Donostiarekiko sentimendu berezia duten biztanleen eta sentimendu hori ez dutenen arteko ezberdintasunak ikustea da, hiriari buruzko zenbait galdera eta aspektuei dagokienez. Bestalde, teoriak baieztatzen duena Donostiaren kasuan ere aplikagarria den frogatzea da helburua.


Analisiarekin hasteko, Donostiarekiko sentimendu berezia duten eta ez duten biztanleen arteko bereizketa egin behar da. Gainera, sentimendu horren arrazoiak atzean zer dagoen ikusi beharko da. Horretarako, hurrengo hauek dira inkestatik aukeratuak izan diren galderak:

- ❖ Donostiarra sentitzen naiz (V13).
- ❖ Donostiarekiko lotura emozional bat dut, hiriari estimua diot (V14).
- ❖ Pertenentzia sentimendua (V74).

Pertenentzia sentimenduaren analisiaren bitartez, donostiarrak sentitu eta hiriarekiko mirespena sentitzen dutenen arrazoiak ikusi daitezke. Gauza berbera donostiarrak sentitzen ez direnekin, haien sentimenduaren arrazoiak ikusiz.

Grafikoa 10.


Donostiarrak sentitzen diren eta ez direnen eta hiriri estimua dioten eta ez dioten biztanleen analisia.



Iturria: Autoreak eginako inkestatik lortutako datuen bitartez.

Grafikoa 11.

Donostiarrak sentitzen diren eta ez diren arrazoien jatorriaren analisisa.



Iturria: Autoreak eginako inkestatik lortutako datuen bitartez.

Hamargarren grafiko honetan ikusi daitekeen bezala, bi galderen erantzunak oso antzekoa dira eta, orokorrean, inkestatuak adostasun-maila handi bat lortu dute bi galdera hauetan. Horrela, inkestatuak %84,38a donostiara sentitzen diren bitartean, %89,38 batek hiriarekiko lotura emozional duela sentitzen du. Inkestatu gehienak Donostian bertan betidanik bizitakoak direla interpretatu daiteke.

Atxikimendu eta lotura emozional hauen atzean, erantzuleek hirian izan ditzaketen lotura sozialak egon daitezke, hala nola, haien familiak, lagunak, etab. Bestalde, gerta daiteke hiriarekiko dependentsia emozional bat garatu izana eta leku geografikoengatik mirespina sentitzea. Gainera, Euskal-kulturarengatik duten mirespina ere egon daiteke lotura emozional hauen atzean. Hamaikagarren grafikoan ikus daitekeen bezala, donostiarrak sentitzen diren %64,4 bat *Soilik Euskalduna* edo *Euskalduna Espainiarra baino gehiago* sentitzen da. Horrela, donostiara sentitzearen sentimendu hori Euskal-kultura eta tradizioengatik duten sentimenduekin doa lotuta, hemengo kultura eta tradizioengatik mirespina sentituz. Faktore psikologiko eta sozial guzti hauen ondorioz dute inkestatuak gehiengoak Donostiarekiko sentimendu berezia.

Bestalde, inkestaturen %6 inguruk adierazi duen moduan, ez dute hiriarekiko inongo atxikimendu emozionalik edo ez dira donostiarrak sentitzen. Talde honen barruan kanpotarrak edo hirira orain dela gutxi iritsitakoak barneratu daitezke. Hirian daramatzaten denboraren ondorioz, ez dute astirik izan Donostiarekiko lotura sozial eta emozional hori garatzeko eta, beraz, ez dira donostiarrak sentitzen. Gainera, donostiarrak sentitzen ez direnen %14,28 bat *Espainiarra sentitzen da Euskalduna baino gehiago*. Ondorioz, Euskal-kultura eta tradizioengatik duen sentimendua ez da hain indartsua, hiriarekiko duen sentimenduan eragiten duelarik.

Behin donostiarrak sentitzen direnen eta ez direnen arteko bereizketa eginda, ikus dezagun ea bi talde hauen arteko iritziak ezberdinak diren Donostiaren inguruan sortzen diren zenbait eztabaida eta planteamenduri dagokionez.


5.3.1. Donostiarrak sentitzen direnen eta ez direnen arteko ezberdintasunak.

Bi talde hauen arteko ezberdintasunak aztertzeko, inkestatik hurrengo galderak izan dira aukeratuak:

- ❖ Donostiako tradizioen mantzentzeak arduratzen nau (V18).
- ❖ Turismoari buruzko erabakietan parte-hartzea gustatuko litzaidake (V21).
- ❖ Nahiago dut Donostian bizi beste edozein lekuetan baino (V15).
- ❖ Hiriko turismo-estrategiengatik interesatzen naiz (V20).

Grafikoa 12.

Donostiarrak sentitzen direnen eta ez direnen artean hiriko tradizioen mantentzearen inguruan dauden ezberdintasunak.




Iturria: Autoreak egina inkestatik lortutako datuen bitartez.

Hasteko, aipatu beharra dago inkestatuen artean 135 pertsona sentitzen direla donostiar eta soilik 14 ez. Donostiarrak sentitzen direnen %78,2 bat hiriko tradizioen mantentzeaz arduratzen da. Bestalde, donostiarrak sentitzen ez direnen %35,82 batek soilik du ardura berbera, hamabigarren grafikoa behatuz aztertu daitekeen bezala. Gainera, donostiarrak sentitzen direnen %8,27 bateri soilik tradizioen mantentzeak axola ez zaien bitartean, portzentai hori nabarmen hazten da donostiar sentitzen ez direnen inguruan hitz egiten dugunean, %28,57 batekoa izanik. Ardura honen atzean pertenezia sentimendua egon daiteke. Hamaikagarren grafikoa ikusi den moduan, donostiarrak sentitzen direnen gehiengoa (%64,4) Euskalduna sentitzen da Espainiarra baino gehiago. Ondorioz, tradizioen mantentze hau hiritar horiek Euskal-kultura eta tradizioengatik duten mirespen eta sentimendu emozionalarekin lotu daiteke.

Beraz, orokorrean donostiarrak sentitzen direnak, donostiarrak sentitzen ez direnak baino ardura handiagoa dute hiriko tradizioei dagokienez.

Grafikoa 13.

Donostiarrak sentitzen direnen eta ez direnen artean turismoari buruzko erabakien inguruan dauden ezberdintasunak.




Iturria: Autoreak egin inkestatik lortutako datuen bitartez.

Hamahirugarren grafikoan ikusten den moduan, donostiarrak sentitzen direnen %57,78 bati turismoaren inguruko erabakietan parte-hartzea gustatuko litzaioke, %18,52 bati gustatuko ez litzaiokeen bitartean. Donostiarrak sentitzen ez direnen datu berberak aztertuz, parte-hartzea gustatuko litzaiekenen portzentaia %42,86 batera murrizten da eta, bestalde, erabakietan parte hartu nahi ez dutenen portzentaia %28,57ra handitzen da.

Ondorioz, aurreko azterketan gertatu den moduan, donostiarrak sentitzen direnek turismoaren inguruko erabakiengatik kezka edo ardura handiagoa dute donostiarrak sentitzen ez direnekin konparatuz gero. Izan ere, Donostiarengatik lotura emozionala dutenek, hiriaren garapen hobea batean laguntzeko aukera dutela ikusten dute turismoaren erabakietan parte hartuz gero, erabaki horietan gehiago nahi dutelarik inolukratu.

Grafikoa 14.

Donostiarrak sentitzen direnen eta ez direnen artean Donostian bizitzeari buruzko erabakiaren inguruan dauden ezberdintasunak.



Iturria: Autoreak egina inkestatik lortutako datuen bitartez.


Hurrengo analisia burutu ahal izateko, donostiarrak sentitzen direnei eta sentitzen ez direnei Donostian bizitzea nahiago duten beste edozein leku batean baino galdetu zaie. Hamalagarren grafikoak argi erakusten du donostiarrak sentitzen direnen eta sentitzen ez direnen arteko ezberdintasun nabarmenak. Izan ere, donostiarrak sentitzen direnen %85,93 batek oso argi du Donostian bizitzea nahiago duela. Soilik %1,48 batek nahiago du Donostia ez den beste leku batean bizi.

Bestalde, donostiarrak sentitzen ez direnen datuak behatuz, portzentai handi batek, %50ak hain zuzen, nahiago du beste leku batean bizi eta %28,57 batek Donostian bizi nahi duela du argi. Beraz, ikus daitekeen moduan, ezberdintasun nabarmenak antzematen dira.

Ezberdintasun horiek donostiarrak sentitzen direnek duten eta sentitzen ez direnek ez duten hiriarekiko lotura emozionalaren ondorioz sortzen dira. Hiriarekiko mirespina dutenek, sentimendu emozionala garatu dute eta, gainera, hiriarekin lotzen dieten faktore sozialak dituzte, lagunak, familia, etab. izan daitezkeenak. Azken hau lekuarekiko dependentzia moduan da ezaguna. Beste alde batetik, donostiarrak sentitzen ez direnek ez dute horrelako lotura emozionalik garatu hiriarekin. Horregatik, berdin zaie Donostian bizi edo beste leku batean. Kasu askotan, nahiago dute beste leku batean bizi Donostian baino, lotura emozionalak beste leku haiekiko garatuak baitituzte. Kanpotarren kasua izan daiteke.

Grafikoa 15.

Donostiarrak sentitzen direnen eta ez direnen artean Donostiako turismo-estrategien inguruan dagoen parte-hartzearen ezberdintasunak.



Iturria: Autoreak egina inkestatik lortutako datuen bitartez.

Hamabosgarren grafikoan ikusten den moduan, ezberdintasun nabarmena antzematen da donostiarrak sentitzen eta sentitzen ez direnen artean, hiriko turismo-estrategien inguruan duten ardurari dagokionez. Berrero ere, donostiarrak sentitzen direnak hiriko turismo-estrategietan gehiago inbolukratzen dira, ardura gehiago erakusten baitute. Donostiarrak sentitzen direnen %68,42 batek ardura erakutsi du turismo-estrategien inguruan. Berriz, donostiarrak sentitzen ez direnen %41,35ak soilik du ardura bera.

Atal honetako aurreko analisiekin gertatu den moduan, antzeko ondorio batera iristen gara grafiko honen analisiaren bitartez. Azkenean, donostiarrak sentitzen direnek, sentikortasun handiagoa dute hirian sortzen diren turismo-gertaera positibo zein negatiboengan. Ondorioz eta hiriarekiko duten lotura emozionala dela eta, Udaletxeak hartutako turismo-erabakietaz arduratzen dira, hiriari positiboki edo negatiboki eragin diezaioketen hausnartzen dutelarik. Donostiarrak sentitzen ez direnen kasuan, setimendu afektibo hori hain garatua ez egotearen ondorioz, hiriko turismo-erabakiak axolagabekeri handiagoa sortzen du, erabakien inguruan ardura gutxiago erakutsiz.


5.3.2. Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoriaren frogapena Donostiaren kasurako.

Egindako lau analisi hauetan ikusi den moduan, leku batekiko biztanleek garatua duten lotura emozional eta sozialak eragina du turismoaren inguruan duten jarrera eta pertzepzioan. Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoria kontuan hartuta, leku zehatz batekiko lotura emozional handia duten biztanleek, lotura emozional txikia dutenek baino jarrera positiboago bat erakutsiko dute turismoaren aurrean. Beste era batera esanda, leku batekiko atxikimendu altua duten biztanleek, atxikimendu txikia dutenek baina errazago sustatuko dute turismoaren garapena eta haren alde ezarriko dira.

Donostiaren kasuan teoria honek dioena aplikagarria den ikusteko, donostiarrak sentitzen direnen eta ez direnen (V13) arteko bereizketa egingo da, ondoren garapen turistikoa zenbateraino bultzatzen duten ikusteko (V54).

Grafikoa 16.

Donostiarrak sentitzen direnak eta ez direnak zenbateraino sustatzen duten garapen turistikoa.



Iturria: Autoreak egina inkestatik lortutako datuen bitartez.

Hamaseigarren grafikoa ikusten den bezala, orokorrean donostiarrak sentitzen direnak, donostiarrak sentitzen ez direnak baino gehiago sustatzen dute garapen turistikoa. Nahiz eta lortutako emaitzak Hartu-eman Sozialaren Teorian lortutakoak baina antzekoagoak izan, Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoriak dioena ere Donostian betetzen dela esan daiteke. Izan ere, Donostiarekiko sentimendua duten inkestatuen %57,9 batek bultzatzen du turismoaren garapena. Ordea, donostiarrak sentitzen ez direnen artean, garapena bultzatzen dutenen ehunekoa %42,86koa da.

Donostiarrak sentitzen direnek Donostiarekiko lotura emozional eta sozial indartsu bat garatzearen ondorioz, hiriaren inguruan sortzen diren turismo erabaki eta arazoekiko izango duten sentikortasuna handiagoa izango da, donostiarrak sentitzen ez direnekin konparatuz gero. Horrela, turismoaren inpaktuen aurrean, jarrera positiboago bat izateko joera izango dute. Guzti honen ondorioz, donostiarrak sentitzen direnek orokorrean garapen turistikoa sustatzeko joera izango dute eta haren alde ezarriko dira.

5.4. Ingurugiroko aspektuen azterketa.


Ingurumeneko aspektuek biztanleek turismoaren inguruan duten pertzepzioan nola eragiten duten aztertzen duen teoria zehatz eta garbi bat egon ez arren, ingurumen faktoreek donostiarren turismo-jarreran duten eragina inkestako galderak orokorrean aztertuz ikusiko dugu. Modu honetan, Turismo Jasangarriaren hirugarren ardatzaren analisia, hau da, ingurumena, atal honen bidez burutuko da. Horretarako, inkestan biztanleei planteaturiko lau galdera erabiliko dira:

- ❖ Ingurugiroko jasangarritasunak arduratzen nau (V35).
- ❖ Hazkunde ekonomikoa ingurumenaren zainketan eutsi behar duela ustet dut (V34).
- ❖ Hiriko turismoa planifikatzerako orduan, ingurumenaren zainketa ardatz nagusietako bat izan behar duela uste dut (V36).
- ❖ Turismoaren hazkundeak ingurumen arazo ugari ekar ditzake (V37).

Beraz, ikusi dezagun zein den donostiarrek ingurumenari buruzko galdera eta planteamenduen inguruan duten pertzepzioa.

Grafikoa 17.

Ingurumen aspektuei buruz donostiarren pertzepzioa.



Iturria: Autoreak egin inkestatik lortutako datuen bitartez.

Hamazazpigarren grafikoan ikusten den bezala, donostiarrek orokorrean nahiko garbi dute ingurumenari buruzko iritzia eta sektore turistikoarekin ingurumenak izan behar duen harremana. Hiriko biztanleak, orokorrean, ingurumenari buruzko arazoengatik inguruan jakinaren gainean daude eta honek ardura eta kezka sortzen die. Ikus daitekeen moduan, 4,28ko batazbestekoa du galdera honek. Gainera, argi dute hiriko hazkude ekonomikoa ezinezkoa dela ingurumenaren zainketa orekatu eta egoki bat burutu gabe. Haien iritziz, sektore turistikoaren garapena burutzerako orduan, ingurumena eta haren mantenimendua eta zainketa ardatz nagusietako bat izan behar du. Hiru planteamendu hauek oso antzeko erantzunak izan dituzte, donostiarren artean adostasun handia dagoelarik. Izan ere, 4tik gorako balorazio batean kokatzen dira. Azkenik, turismoaren hazkundera ingurumen arazoak ekar ditzakeela planteatu zaienean, nahiko adostasun-maila handia egon da, 3,8ko batazbestekoa izan duelarik.

Sektorearen eta turisten etorrera kopuruaren hazkunderaren ondorioz, Donostiako eta inguruetako ingurumenak kalte ugari pairatzen ari da. Eremu naturalak narriadura handia jasotzen ari dira eta honek, azkenean, bertako biztanleengan du eragina. Izan ere, haiek dira leku horien jabe nolabait eta toki horien erabiltzaile nagusiak. Donostiarrak gero eta gehiago ari dira konturatzen sektore honek ingurumenean duen eraginaz eta, ondorioz, sektorearen etorkizuna ingurumenaren eskutik joan behar duela uste dute, grafikoak argi erakusten duen moduan.

6.ONDORIOAK

Atal honetan, Gradu Amaierako Lan honen analisi eta azterketaren bidez lortu diren ondorio nagusiak azalduko dira, etorkizunerako hobekuntza batzuk planteatzearekin batera.

Azken hamarkadetan sektore turistikoak izan duen hazkundera eta herrialde askorentzako duen pisua nabarmena eta azpimarratzekoa da. Horrela, hazkundera honen ondorioz sektoreak dituen ekarpen positiboak geroz eta garrantzitsuagoak eta ugariagoak dira, batez ere ekonomikoak direlarik. Esate baterako, sektoreak lanpostuen sormenean, hirietako azpiegituren hobekuntzan, kulturen arteko integrazioan, etab. duen pisua hazten ari da. Hala ere, hazkundera honek baditu ere alde negatiboak, batez ere leku turistikoetako biztanleek pairatzen dituztenak.

Kontextu honetan eta sektorearen hazkundera azkarraren ondorioz, azken urteotan Turismo Jasangarri baten beharra antzeman dute adituek. Izan ere, sektoreak duen hazkundera-eritmoarekin jarraitzen bada, ezin izango da denbora luzaroan mantendu eta kalte nabarmenak eragingo ditu mundu mailako ekonomi, arlo sozio-kultural eta ingurumenetan. Beraz, sektore turistikoaren eboluzio-prozesu batean murgildu dira mundu osoko herrialde ugari, sektorea jasangarri bihurtzeko helburuarekin.

Espainiaren kasua ez da gutxiago izan eta bete-betean barneratu da Turismo Jasangarriaren ideian. Munduko bigarren herrialde bisitatuena izanik eta urtero 80 milioi turista jasotzen dituen herrialdea izanik, prozesu honetan barneratzeko beharra ikusi du Espainiak. Baina, aditu askok dioten bezala, leku zehatz bateko sektore turistikoa ezin daiteke guztiz jasangarria izan bertako biztanleen iritzia kontuan hartu gabe. Horrela, Donostian sektoreak duen pisu handiaren ondorioz eta Espainia mailan hiriak duen garrantzia dela eta, lan honen bitartez Donostiako biztanleek turismoari buruz duten pertzepzioa neurtu eta aztertu da Turismo Jasangarriaren hiru ardatz nagusietatik: arlo ekonomikoa, sozio-kulturala eta ingurumenekoa.

Aspektu ekonomiko eta sozialak Hartu-eman Sozialaren Teoriaren bidez izan dira aztertuak. Horiekin hasiz, donostiarrentzako orokorrean turismoa positiboa dela eta ekartzen dituen onuren pisua, jasanarazten dizkieten kostuen pisua baina handiagoa dela ondorioztatu da, hau da, onuren pisua kostuena baina handiagoa dela. Turismoak ekartzen dituen onura ekonomiko eta sozial nagusien artean, aktibitate kulturalen sormena, kulturen arteko kontakturako aukera, turisten etorrera, kalitatezko lanpostuen sormena edo azpiegituren hobekuntza daude, nahiz eta azken bi hauek donostiarren kopuru zehatz baten ustez onurak beharrean kostuak izan. Bestalde, turismoak sortarazten dituen kostuei dagokienez, nabarmen antzematen dituzte donostiarrek zeintzuk diren, hala nola, taberna, jatetxe eta etxebizitzetako prezioen igoera, trafiko eta aparkamendu arazoak eta pertsonen aglomerazio eta masifikazioak. Gainera, lan honen bidez lortutako ondorio nagusietako bat Hartu-eman Sozialaren Teoria Donostiaren kasuan ere aplikagarria dela da. Honek hurrengo esan nahi du: sektore turistikotik onura gehiago antzematen dituzten biztanleek, kostu gehiago antzematen dituztenak baina modu errazago batean sustatuko dute Donostiako turismo garapena eta haren alde ezartzeko joera izango dute.

Aspektu sozialak ere Lekuarekiko Atxikimenduaren Teoriaren bitartez aztertuak izan dira. Teoria honen kasuan, Donostian ere aplikagarria dela ondorioztatu da, hau da, Donostiarekiko lotura emozional handia garatua duten biztanleek, lotura bera hori hain garatua ez duten biztanleek baina modu errazago batean sustatuko dute Donostiako turismoaren garapena eta haren alde ezartzeko joera izango dute. Atal honetan ikusi den moduan, ezberdintasun nabariak daude donostiarrek sentitzen direnen eta ez direnen artean. Izan ere, donostiarrek sentitzen direnek lotura emozionala dute garatuta hiriarekiko eta turismo-gaietan gehiago inbolukratzen direla ikusi eta ondorioztatu da.

Azkenik, ingurumen aspektuei dagokienez, donostiarren iritzi orokorra aztertu da. Nahiz eta inkestan garrantzi handia ez eman ingurumenaren aspektuei, donostiarrek jarrera nahiko homogeneoa erakutsi dute arlo honi dagokionez. Aztertu den moduan, donostiarrei ingurumenak arduratzen die. Izan ere, hiriko hazkunde ekonomikoak ingurumenaren zainketaren eskutik joan behar duela ondorioztatu da, donostiarrentzako ardatz nagusia izanik sektore turistikoaren garapenean. Bestalde, hiriko biztanleen usteetan sektorearen hazkundeak ingurumen arazoak ekar ditzakeela ondorioztatu da.

Etorkizunari begira, hainbat planteamendu ezartzen dira mahai gainean. Hasteko, Turismo Jasangarriaren kontzeptuari mundu mailan indar gehiago ematen saiatu behar da. Izan ere, datuek adierazten duten moduan, gaur egungo turismo ereduarekin jarraitzea ez da posible, sektorearen biziraupena ez baitu bermatzen. Horrela, turismo-herrialde handien ekintza eta ekimen ekonomiko, sozio-kultural eta ingurumenekoak areagotzeari ekin behar zaio, eboluzio-prozesua azkartzeko helburuarekin.

Donostiaren kasuan, donostiarren iritzia bitartez jakin dugu zeintzuk diren haiek antzematen dituzten onura eta kostu ekonomiko eta sozial nagusiak. Horrela, Donostiako Udalak Turismo Bulegoarekin eta beste hainbat erakundeekin elkarlanean arituz, onura horiek indartzen eta kostu horien inpaktua murrizten saiatu beharko luke. Esate baterako, jatetxe, taberna eta etxebizitzetako prezioak lehiakorragoak izateko zenbait politika mugatzaile garatu daitezke, prezioen hazkunde ahalbideezinarekin amaitzeko asmoz. Trafiko eta aparkamendu arazoei dagokienez, trafiko arazoak sortzen diren auzo horietan garraio publiko bidez, oinez edo bizikletaz soilik sartzea ezarri daiteke, oinezkoen lehentasuna emanez eta leku horiek peatonalizatuz. Pertsonen aglomerazioak sortzen diren auzoetan, deszentralizazio prozesu baten garapena proposatu daiteke, turistak erakartzen dituzten establezimendu eta ekintzak auzo ez hain masifikatuetara eramanez. Modu horretan, Donostiako turismoa banatuagoa egongo litzateke hiri osoan zehar.

Literatura eta teoriari erreferentzi eginaz, ikusi dugun moduan garatzeko eta hobetzeko margen handia dago oraindik. Nahiz eta Turismo Jasangarriak hiru ardatz nagusi izan, adituak batez ere biztanleen pertzepzioan eragina duten aspektu ekonomikoetan zentratu dira, hau baita, esate baterako, Hartu-eman Sozialaren Teoriari egiten zaion kritika nagusia. Bestalde, aspektu sozio-kulturalak kontuan hartzen dituzten teoriak badaude baina, ez zaie hainbeste garrantzi ematen. Azkenik, ingurumenari dagokionez, biztanleen pertzepzioa ingurumeneko inpaktuekin lotzen duten teoria garatu eta garbiak ez daude, beti aspektu ekonomiko edo sozio-kulturalak lantzen dituzten teoriaren parte dira. Honen harira, adituak Turismo Jasangarriaren hirugarren ardatz honen literaturan zentratu daitezke, duen garrantzia emanez eta aspektu ekonomikoetan hainbeste ez zentratuz. Horrela, etorkizun ez oso urrun batean hiru ardatzen teoria garatu eta sendoak izango ditugu, etorkizunean egin daitezkeen lan eta analisisien onurarako.

BIBLIOGRAFIA

Acerenza, M. A. (2006). *Conceptualización, Origen Y Evolución Del Turismo*. México: Trillas.

Agüera, F. O. (2014). Los impactos económicos, sociales y medioambientales negativos en el ecoturismo: Una revisión de la literatura. *Nómadas. Critical Journal of Social and Juridical Sciences*, 42 (2).

Andereck, K. L., Valentine, K. M., Knopf, R. C., & Vogt, C. A. (2005). Residents' perceptions of community tourism impacts. *Annals of tourism research*, 32 (4), 1056-1076.

Bruce-Lockhart, A. (2019). These are the top countries for travel and tourism in 2019. *World Economic Forum*. Hemen eskuratua: <https://www.weforum.org/agenda/2019/09/most-travel-tourism-competitive-countries-2019/>

Canalís, X. (2018). El peso del turismo en la economía mundial: 10,4% del PIB. *Hosteltur*. Hemen eskuratua: https://www.hosteltur.com/127277_peso-turismo-economia-mundial-104-pib.html

Cardona, J. R. (2012). Actitudes de los residentes hacia el turismo en destinos turísticos consolidados: el caso de Ibiza. *Universitat de les Illes Balears, Palma*, 54-86.

Choi, H. S. C., & Sirakaya, E. (2005). Measuring residents' attitude toward sustainable tourism: Development of sustainable tourism attitude scale. *Journal of travel research*, 43 (4), 380-394.

Crotti R., & Misrahi, T. (2015). T&T as a Resilient Contribution to National Development. In Geiger, T., & Lanvin, B., *The Travel & Tourism Competitiveness Report 2015* (or. 3-29). Switzerland: World Economic Forum.

DATAESTUR (2022). *Encuesta de gasto turístico (EGATUR)*. 2022ko apirilean kontsultatua. Hemen eskuratua: <https://www.dataestur.es/general/egatur/>

DATAESTUR (2022). *Movimientos turísticos en fronteras (FRONTUR)*. 2022ko apirilean kontsultatua. Hemen eskuratua: <https://www.dataestur.es/general/frontur/>

Di-Bella, M. G. (1991). *Introducción al turismo*. México: Trillas.

Donostiako Udala (2022). *"San Sebastián sin desperdicio": un proyecto municipal para luchar contra el despilfarro alimentario*. 2022ko maiatzean kontsultatua. Hemen eskuratua: <https://www.donostia.eus/ataria/web/ingurumena/elikagaien-estrategia/donostia-hondakinik-gabe>

Dyer, P., Gursoy, D., Sharma, B., & Carter, J. (2007). Structural modeling of resident perceptions of tourism and associated development on the Sunshine Coast, Australia. *Tourism management*, 28 (2), 409-422.

Eusébio, C., Vieira, A. L., & Lima, S. (2018). Place attachment, host–tourist interactions, and residents' attitudes towards tourism development: The case of Boa Vista Island in Cape Verde. *Journal of Sustainable Tourism*, 26 (6), 890-909.

Eustat (2022). *En abril de 2022 las entradas y pernoctaciones en los establecimientos hoteleros de la C.A. de Euskadi se han triplicado con respecto a 2021*. 2022ko apirilean kontsultatua. Hemen eskuratua: https://www.eustat.eus/elem/ele0019800/not0019871_c.pdf

Eustat (2022). *Entradas y pernoctaciones en establecimientos hoteleros de la C.A. de Euskadi por mes y año según territorio histórico. Abril 2022*. 2022ko apirilean kontsultatua. Hemen eskuratua: https://www.eustat.eus/elementos/ele0000200/entradas-y-pernoctaciones-en-establecimientos-hoteleros-de-la-ca-de-euskadi-por-mes-y-ano-segun-territorio-historico/tbl0000260_c.htm

Fernández, E. (2019). El turismo contamina y afecta al cambio climático: un 8% de los gases de efecto invernadero en todo el mundo provienen de este sector. *Business Insider España*. Hemen eskuratua: <https://www.businessinsider.es/turismo-emite-8-gases-efecto-invernadero-mundo-541267>

García, J. R., & Ruíz, R. P. (2020). ¿Hacia un turismo más sostenible tras el covid-19? Percepción de las agencias de viajes españolas. *Gran tour, revista de investigaciones turísticas*, (21), 206-229.

Gruter, M. (2013). Impactos negativos del turismo. In Torres, V., & Pierre, E. *Antropología del Turismo. La industria sin chimeneas*, 63-70. Perú: Tinkuy.

Hateftabar, F., & Chapuis, J. M. (2020). How resident perception of economic crisis influences their perception of tourism. *Journal of Hospitality and Tourism Management*, 43, 157–168.

ICEX (2020). *Sector del Turismo y ocio en España*. 2022ko martxoan kontsultatua. Hemen eskuratua: <https://www.investinspain.org/es/sectores/turismo-ocio>

IMF (2021). *El turismo en el mundo tras la pandemia*. 2022ko martxoan kontsultatua. Hemen eskuratua: <https://www.imf.org/es/News/Articles/2021/02/24/na022521-how-to-save-travel-and-tourism-in-a-post-pandemic-world>

INE (2022). *Cuenta satélite del turismo de España / Últimos datos*. 2022ko apirilean kontsultatua. Hemen eskuratua: https://www.ine.es/prensa/cst_2020.pdf

INE (2022). *Estadística de Movimientos Turísticos en Fronteras. Abril 2022. Datos provisionales.* 2022ko apirilean kontsultatua. Hemen eskuratua: <https://www.ine.es/daco/daco42/frontur/frontur0422.pdf>

Lenzen, M., Sun, Y. Y., Faturay, F., Ting, Y. P., Geschke, A., & Malik, A. (2018). The carbon footprint of global tourism. *Nature climate change*, 8 (6), 522-528.

Milman, A., & Pizam, A. (1988). Social impacts of tourism on central Florida. *Annals of tourism research*, 15 (2), 191-204.

Moreno, M. C. M. (2011). Turismo y producto turístico. Evolución, conceptos, componentes y clasificación. *Visión gerencial*, (1) 135-158.

Nunkoo, R. (2016). Toward a more comprehensive use of social exchange theory to study residents' attitudes to tourism. *Procedia Economics and Finance*, 39, 588-596.

Nunkoo, R., & Ramkissoon, H. (2010). Modeling community support for a proposed integrated resort project. *Journal of Sustainable Tourism*, 18 (2), 257-277.

Nunkoo, R., Smith, S. L., & Ramkissoon, H. (2013). Residents' attitudes to tourism: A longitudinal study of 140 articles from 1984 to 2010. *Journal of Sustainable Tourism*, 21 (1), 5-25.

Pagola, J. (2019). Cuando San Sebastián era la meca del turismo. *BI FM*. Hemen eskuratua: <https://www.bifmradio.com/firmas/san-sebastian-meca/>

Pizam, A. (1978). Tourism's impacts: The social costs to the destination community as perceived by its residents. *Journal of travel research*, 16 (4), 8-12.

Programa de Turismo Sostenible de One Planet (2020). *La visión de One Planet para una recuperación responsable del sector turístico.* Hemen eskuratua: <https://webunwto.s3-eu-west-1.amazonaws.com/2021-03/200604-es-brochure-one-planet-vision-responsible-recovery.pdf>

Ramkissoon, H., Weiler, B., & Smith, L. D. G. (2013). Place attachment, place satisfaction and pro-environmental behaviour: a comparative assessment of multiple regression and structural equation modelling. *Journal of Policy Research in Tourism, Leisure and Events*, 5 (3), 215-232.

Rasoolimanesh, S. M., Jaafar, M., Kock, N., & Ramayah, T. (2015). A revised framework of social exchange theory to investigate the factors influencing residents' perceptions. *Tourism Management Perspectives*, 16, 335-345.

San Sebastián Turismo (2022). *Donostia helmuga jasangarria.* 2022ko maiatzean kontsultatua. Hemen eskuratua: <https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/etorri/donostia-helmuga-jasangarria>

San Sebastián Turismoa (2020). *Memoria 2020*. 2022ko apirilean kontsultatua. Hemen eskuratua:

https://press.sansebastianturismoa.eus/images/prensa_agentes/pdf/memoria/Memoria_SST_2020_castellano.pdf

Soto, A. Ú. (2021). Turismo: Gipuzkoa ha recibido este verano casi tantos visitantes como en 2019. *Noticias de Gipuzkoa-Edición Digital*. Hemen eskuratua: <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/sociedad/2021/10/21/turismo-gipuzkoa-recibido-verano-visitantes/1150914.html>

Tendencias21 (2020). El turismo ya es una de las industrias más contaminantes. *Tendencias21*. Hemen eskuratua: https://tendencias21.levante-emv.com/el-turismo-ya-es-una-de-las-industrias-mas-contaminantes_a44533.html

UNWTO (2022). *Acción por el Clima. Transformar el turismo para actuar por el clima*. 2022ko martxoan kontsultatua. Hemen eskuratua: <https://www.unwto.org/es/desarrollo-sostenible/accion-por-el-clima>

UNWTO (2022). *Declaración de Glasgow sobre la Acción Climática en el Turismo. Turismo Sostenible*. 2022ko martxoan kontsultatua. Hemen eskuratua: <https://www.unwto.org/es/declaracion-de-glasgow-sobre-la-accion-climatica-en-el-turismo>

UNWTO (2022). *Desarrollo sostenible*. 2022ko martxoan kontsultatua. Hemen eskuratua: <https://www.unwto.org/es/desarrollo-sostenible>

UNWTO (2020). El sector turístico continuará tomando medidas contra la contaminación por plásticos. *United Nations World Tourism Organization*. Hemen eskuratua: <https://www.unwto.org/es/news/el-sector-turistico-continuara-tomando-medidas-contra-la-contaminacion-por-plasticos>

UNWTO (2022). *Glosario de términos de turismo*. 2022ko martxoan kontsultatua. Hemen eskuratua: <https://www.unwto.org/es/glosario-terminos-turisticos>

WTTC (2020). Clave, El Sector De Viajes Y Turismo En La Inclusión De Género. *World Travel & Tourism Council*. Hemen eskuratua: <https://wtcc.org/News-Article/Clave-El-Sector-De-Viajes-Y-Turismo-En-La-Inclusión-De-Género>

ERANSKINA I: Inkesta

El presente cuestionario forma parte de la elaboración de un Trabajo de Fin de Grado de la Facultad de Economía y Empresa (sección Gipuzkoa) de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) en el marco de la realización de un proyecto de investigación sobre turismo urbano. Agradeceríamos su colaboración, ya que es muy importante para el estudio.

P1.- Valore de 1 al 5 su nivel de acuerdo con las siguientes frases acerca del turismo en Donostia

		<i>Nada de acuerdo</i> <i>Muy de acuerdo</i>				
El turismo es algo positivo para la ciudad	v1	1	2	3	4	5
El turismo mejora la economía de Donostia	v2	1	2	3	4	5
El turismo es el principal impulsor económico de San Sebastián	v3	1	2	3	4	5
El turismo genera oportunidades de empleo de calidad en la ciudad	v4	1	2	3	4	5
Gracias al turismo hay más actividades culturales y de ocio en la ciudad	v5	1	2	3	4	5
El turismo supone una oportunidad de contacto entre culturas	v6	1	2	3	4	5
El turismo me beneficia económicamente	v7	1	2	3	4	5
Yo o mi familia trabajamos u obtenemos rentas de sectores relacionados con el turismo	v8	1	2	3	4	5
Que desaparezca el turismo afectaría de manera directa a mi economía	v9	1	2	3	4	5
El turismo contribuye en la calidad de vida de la población local	v10	1	2	3	4	5
El turismo nos hace valorar más nuestra identidad cultural	v11	1	2	3	4	5
El turismo hace que mejore las infraestructuras urbanas	v12	1	2	3	4	5

P2.- Valore de 1 al 5 su nivel de acuerdo con las siguientes afirmaciones personales

		<i>Nada de acuerdo</i> <i>Muy de acuerdo</i>				
Me siento Donostiarra	v13	1	2	3	4	5
Tengo un vínculo emocional con Donostia. Siento aprecio por la ciudad	v14	1	2	3	4	5
Prefiero vivir en Donostia antes que en cualquier otro lugar	v15	1	2	3	4	5
Me gusta participar en actividades y tradiciones de la ciudad	v16	1	2	3	4	5
Me preocupa el futuro económico de Donostia	v17	1	2	3	4	5
Me preocupa el mantenimiento de las tradiciones de Donostia	v18	1	2	3	4	5
Me preocupa la convivencia en la ciudad	v19	1	2	3	4	5
Me intereso por las decisiones estratégicas de turismo de la ciudad	v20	1	2	3	4	5
Me gustaría participar en la toma de decisiones sobre el turismo	v21	1	2	3	4	5
Creo que las decisiones clave sobre turismo deberían consultarse a la ciudadanía	v22	1	2	3	4	5

P3.- Indique si está de acuerdo en que el turismo genera los siguientes problemas a Donostia

		<i>Nada de acuerdo</i> <i>Muy de acuerdo</i>				
Pérdida de pequeño comercio tradicional	v23	1	2	3	4	5
Aumento de los precios en bares y restaurantes	v24	1	2	3	4	5
Aumento de precios en comercio	v25	1	2	3	4	5
Menor oferta de vivienda en alquiler	v26	1	2	3	4	5
Aumento de precios de la vivienda	v27	1	2	3	4	5

Problemas de tráfico y aparcamiento	v28	1	2	3	4	5
Aglomeraciones de gente por la calle	v29	1	2	3	4	5
Ocupación de la calle para terrazas, expositores de tiendas...	v30	1	2	3	4	5
Oferta cultural orientada al turismo más que a ciudadanía local	v31	1	2	3	4	5
Comportamientos molestos (ruido, suciedad...)	v32	1	2	3	4	5
Zonas de ocio en las que el turismo ha desplazado a la población local	v33	1	2	3	4	5

P4.- Indique su grado de acuerdo con las siguientes afirmaciones acerca de la sostenibilidad

		<i>Nada de acuerdo</i>		<i>Muy de acuerdo</i>		
Creo que el crecimiento económico debe estar supeditado al cuidado del medio ambiente	v34	1	2	3	4	5
Me preocupa la sostenibilidad ambiental	v35	1	2	3	4	5
El cuidado del medio ambiente debería ser un eje principal al planificar el turismo de la ciudad	v36	1	2	3	4	5
El auge del turismo puede traer importantes problemas ambientales	v37	1	2	3	4	5

P5.- Indique su grado de acuerdo con las siguientes afirmaciones acerca del impacto del turismo

		<i>Nada de acuerdo</i>		<i>Muy de acuerdo</i>		
Creo que las empresas del sector turístico deberían esforzarse en generar beneficios para la comunidad (empleos de calidad...)	v38	1	2	3	4	5
Debería apostarse por un turismo que no altere la comunidad local	v39	1	2	3	4	5
Hay que regular el turismo para que tenga un impacto positivo sobre la comunidad	v40	1	2	3	4	5
Debería ponerse en marcha una tasa turística destinada al desarrollo local	v41	1	2	3	4	5

P6.- Valore de 1 al 5 su nivel de acuerdo con las siguientes frases acerca del turismo y la COVID-19

		<i>Nada de acuerdo</i>		<i>Muy de acuerdo</i>		
Mis ingresos han bajado por la caída del turismo en época de la COVID-19	v42	1	2	3	4	5
Creo que el impacto de la COVID-19 sobre el turismo es enorme	v43	1	2	3	4	5
Creo que pasará mucho tiempo hasta volver a niveles de turismo anteriores a la pandemia	v44	1	2	3	4	5
Se deberían de haber aplicado más medidas sanitarias a los turistas (tests obligatorios)	v45	1	2	3	4	5
Siento que las normas Covid son más flexibles con los turistas	v46	1	2	3	4	5
Creo que el turismo puede acentuar los problemas sanitarios	v47					

P7.- Valore su nivel de acuerdo con las siguientes frases acerca del futuro del turismo en Donostia

		<i>Nada de acuerdo</i>		<i>Muy de acuerdo</i>		
Me gusta que vengan turistas a Donostia	v48	1	2	3	4	5
Hay margen para que crezca el turismo en Donostia	v49	1	2	3	4	5
El ayuntamiento debería tratar de atraer más turistas	v50	1	2	3	4	5
Debemos adaptar la planificación de la ciudad a las necesidades del turismo	v51	1	2	3	4	5
Las autoridades deben apostar por hacer crecer el turismo lo máximo posible	v52	1	2	3	4	5

El turismo debería ser impulsado como el principal motor económico de la ciudad	v53	1	2	3	4	5
Apoyo firmemente el desarrollo del turismo	v54	1	2	3	4	5
Tras la COVID-19 debería replantearse la estrategia turística de Donostia	v55	1	2	3	4	5
Tras la COVID-19 debería replantearse los objetivos turísticos de Donostia	v56	1	2	3	4	5
Tras la COVID-19 debería replantearse el perfil del turista de Donostia	v57	1	2	3	4	5

P8.- Indique si está de acuerdo con las siguientes afirmaciones acerca de la gestión de la ciudad y el turismo por parte del Ayuntamiento y otras instituciones públicas

		<i>Nada de acuerdo</i>					<i>Muy de acuerdo</i>				
Habría que preguntar a la ciudadanía acerca de la estrategia turística de la ciudad	v58	1	2	3	4	5					
Hoy en día se piensa más en el turismo que en la ciudadanía local	v59	1	2	3	4	5					
Se debería derivar el turismo a zonas menos masificadas	v60	1	2	3	4	5					
Estoy a favor de la implantación de una tasa turística en Donostia	v61	1	2	3	4	5					
Estoy a favor de la imagen de la ciudad que se traslada en las campañas publicitarias	v62	1	2	3	4	5					
Se debería promover campañas menos centradas en la gastronomía	v63	1	2	3	4	5					
Se deberían atraer más ferias y congresos profesionales	v64	1	2	3	4	5					
Se debería atraer más programa cultural, teatro, conciertos...	v65	1	2	3	4	5					
Se debería evitar el tráfico en la zona centro, peatonalizar	v66	1	2	3	4	5					
Creo que el ayuntamiento debería frenar la concesión de licencias Turísticas	v67	1	2	3	4	5					

Sexo	v68	Mujer		Hombre					
		1		2					
Nivel de estudios	v69	Sin estudios/primarios		Secundaria/FP	Universitarios/superiores				
		1		2		3			
Barrio de residencia	v70								
Edad	v71								
Num. Miembros hogar	v72	1	2	3	4	5	6	7	o más.
Renta familiar (bruta anual)	v73	0-20.000	20.001-40.000	40.001-70.000	70.001-100.000	>100.000			
		1	2	3	4	5			
Senti - miento de pertenencia	v74	Solamente vasco/a		1					
		Más vasco/a que español/a		2					
		Tan vasco/a como español/a		3					
		Más español/a que vasco/a		4					
		Solamente español/a		5					

Espectro político	v75	Izquierda				Centro				Derecha	
		1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

ERANSKINA II: Elkarrizketak

Donostiako Turismo Bulegoa

Donostiako biztanleen pertzepzioari, erantzun sozialari eta jasangarritasunari buruzko galderak egingo dira.

Pertzepzioa:

1-Udaletxearen ikuspuntutik, hiritarrek orokorrean duten jarrera turismoaren aurrean, positiboa edo negatiboa dela iruditzen zaizue?

2-COVID-19 ak eraginik izan duela uste duzue pertzepzio horren aurrean, hau da, orain aldeko edo kontrako pertzepzio handiagoa automaten duzue?

3-Sektore turistikoak oraindik hazteko marjina duela iruditzen al zaizu Donostiako kasuan?

4-Zein arrazoi izan ditzakete sektorearekiko aurkako pentsamendua duten hiritarrek pentsamendu hori izateko?

5-Zure ustez, etxebizitzaren prezioen igoera arazo garrantzitsu bat bilakatzen ari da?

6-Turismoaren hazkundea dela eta, zein uste duzue dela auzorik kaltetuena eta onuratuena?

7- turismoak sortzen dituen lanpostuak, kalitate baxukoak izaten amaitzen dutetela esaten da. Horren aurrean zer uste duzue eta zer aldaketa proposa daiteke?

8-Turismoaren erregularizazio ezberdinak entzuten dira maiz, hala nola, tasak, maximoak, etab. Horrelakoren bat planteatu al da inoiz?

9-Donostiako eta Euskal Herriko kulturaren aurrean, turismoa positiboa edo kaltegarria dela iruditzen zaizu? Zergatik?

10-Sektore turistikoak beherakada bat pairatu ez gero, hiriko azpiegituretan aldaketarik nabariko litzatekeela uste duzue?

Jasangarritasuna:

1-Turismoaren ardatzetako bat jasangarritasuna izan behar duela uste duzue?

2-Turismo jasangarria lortzeko herritarren iritzia eta pertzepzioa garrantzitsua dela uste duzue?

3-Uste duzue Donostiako herritarrak turismo jasangarri baten behararen jabe direla eta orokorrean hura lortzeko egiten dutela?

4-Uste duzu Donostiako turismoa jasangarria dela edo oraindik lan handia geratzen da hara iristeko?

5-Donostiako turismoa jasangarriago izateko zein ekintza ari zarete garatzen?

Erantzun soziala:

1-2017 urteko udaran, manifestazioak egon ziren turismoaren aurka. Horietan aldarrikatzen zena hiriarentzat onuragarria edo kaltegarria zela iruditzen zaizu?

2-BiziLagun Ekin elkarteak, Donostia mailan indarra duena, batez ere etxebizitzaren inguruan eta sektorearen desazkunde batean zentratzen da. Hauek eskatzen dutena onuragarria edo kaltegarria dela uste duzu?

3-Horrelako mugimenduen aurrean, zein da zuen jarrera?

4-Etorkizunean horrelako talde edo mugimendu gehiago espero dituzue?

5-Dagoeneko egin al duzue aldaketarik mugimendu hauen eskaerak asetzeko?

6-mugimendu hauetan parte hartzen duten pertsonen, perfil antzeko bat izaten al dute?

7-Amaitzeko, turismoaren aurkako mugimenduetan parte hartzen duten pertsonen, zer esango zenieke?

BiziLagun Ekin eta Ernai

Donostiako biztanleen pertzepzioari, erantzun sozialari eta jasangarritasunari buruzko galderak egingo dira.

Pertzepzioa:

1-Azaldu dezakezue labur nortzuk zareten eta zein modelo turistiko defendatzen duzuen?

2-Era orokor batean hasteko, zuen ustez Donostiako hiritarrek zer pertzepzio dute turismoarekiko?

3-COVID-19a eta gero, pertzepzio hori zerbait aldatu dela esango zenuke? Pandemia garaian sektoreak izan duen beherakadaren ondorioz.

4-Turismoaren sektorea oraindik hazkunde prozesu batean dagoela iruditzen zaizu Donostiako kasuan?

5-Turismoaren hazkundera dela eta, zein uste duzu dela arazorik handiena?

6-Turismoaren hazkundera dela eta, zein uste duzu dela auzorik kaltetuena eta onuratuena?

7-Zure ustez, etxebizitzaren prezioen igoera arazo garrantzitsu bat bilakatzen ari da? Eta uste duzu turismoa dela prezioen igoera horien eragile nagusia? Zergatik?

8-Turismoaren erregularizazio ezberdinak entzuten dira maiz, hala nola, tasak, maximoak, etab. Horrelakoren bat ezarriz gero, onuratzat hartuko zenuke?

9-Turismoak sortzen dituen lanpostuak, kalitate baxukoak izaten amaitzen dutela esaten da. Horren aurrean zer uste duzu eta zer aldaketa proposa daiteke?

10-Donostiako eta Euskal Herriko kulturaren aurrean, turismoa positiboa edo kaltegarria dela iruditzen zaizu? Hemengo kulturaren eragina duela esan daiteke? Zergatik?

11-Etortzen diren turistak hemengo kulturaren murgiltzen direla esan daiteke?

12-Sektore turistikoak beherakada bat pairatu ez gero, hiriko azpiegiturretan aldaketarik nabariko litzatekeela uste duzu?

13-Masifikazioek hiritarrak batzuetan donostiarrak ez sentitzea sor dezaketela uste duzu?

14-Inoiz elkarlanean aritu al zarete Udaletxearekin edo saiatu al zarete?

Jasangarritasuna:

1-Turismoaren ardatzetako bat jasangarritasuna (ekonomikoa, sozio-kulturala eta ingurumenekoa) izan behar duela uste duzu?

2-Turismo jasangarria lortzeko herritarren iritzia eta pertzepzioa garrantzitsua dela uste duzu?

3-Uste duzu udaletxeak ahalegin nahikoak egiten dituela hiritarren pertzepzioak ulertu eta kontuan hartzeko?

4-Uste duzu Donostiako turismoa jasangarria dela edo oraindik lan handia geratzen da hara iristeko?

5-Donostiako turismoa jasangarriago izateko zein ekintza ari zarete garatzen?

Erantzun soziala:

1-2017 urteko udaran, manifestazioak egon ziren turismoaren aurka. Horietan zer aldarrikatzen zen zehazki?

2-Bizilagun Ekin elkarteak, zer eskaera egiten ditu zehazki?

3-Zuen mugimenduen aurrean, zein da udalaren jarrera? Eta hiritarrena?

4-Etorkizunean mugimendu gehiago sortzea espero dituzue, edota zuena hazten jarraitzea?

5-Egindako aldarrikapen esta eskaeren ondorioz, aldaketarik nabari duzue hirian?

6-Amaitzeko, udaletxeko turismo sailari zerbait esateko aukera izan ez gero, zer izango litzateke? Eta Donostiako hiritar guztiak entzuten egon ez gero, zer esango zenuke?